

KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK

XXXVII.
edizioa

Ipuin idatzia / Poesia

Bertso edo Koplak

Komikia

Ipuin kontaketa /
Antzerkia / Podcast-a /
Txistekak

Balontziaga 22

Antolatzailea:



Begarako Udala
EUSKARA ZERBITZUA

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati.

Lege-gordailua: SS 42-2015

SARRERA.....	5
--------------	---

Ipuina / Poesia

1. taldea:

Saria: Zuhaitz misteriotsua. Lea Alberdi.....	7
Saria: Neskato sorgina. Ekhi Irizar.....	11
Saria: Dotofiren bidaia. Anouk Izagirre.....	17

2. taldea:

Saria: Baretxoa baratzean. Aimar Arzelus.....	21
Saria: Ane alienigena. Elene Contreras.....	25
Saria: Hontzaren istorioa. Garazi Eizmendi.....	29

3. taldea:

Saria: Kirikinoaren abenturak. Egoi Etxebarria.....	33
Saria: Paramoudren misterioa. Maialen Garcia.....	39
Saria: Basoan galduta. Haizea Sanchez.....	45

4. taldea, ipuina:

1. saria: Lagun bereziak. Maite Errasti.....	49
2. saria: Bidean aurrera. Julen Badiola.....	57
3. saria: Zuri-beltzeko poza. Gorka Moreno.....	65

4. taldea, poesia:

1. saria: Ur azpian. Libe Ugarte.....	71
--	----

5. taldea, ipuina:

1. saria: Desagertutako semea. Ainhoa Pardina.....	75
2. saria: Harrabotsak hizpide. Aroa Elortza.....	83

5. taldea, poesia:

1. saria: Amaren mila aurpegi. Lierni Elortza.....	105
2. saria: Zenbatutako egunak eta egun zenbatuak. Aroa Elortza.....	111

Bertsoa

1. taldea:

Saria: Ea asmatzen duzuen zein emozio den.	
Aranzadi ikastolako 6.mailako ikasleak.....	125
Saria: Munduan zehar bidaiatzen ari gara.	
Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak.....	129
Saria: 22. korrika. Ibai Moncayola eta Itzal Mujika.....	133

2. taldea:

1. saria: Ene, oporrak! Maite Errasti.....	137
---	-----

Komikia

1. taldea:

Saria: Kontuz frutarekin. Markel Akizu.....	141
Saria: Marteko aliena. Iratz Arenaza.....	143
Saria: Pozik ala ez? Miren Irizar.....	145

2. taldea:

1. saria: Accacia eta eukaliptoa. Jare Alberdi.....	147
2. saria: Superbotereak zituen mutil arraroa. June Tabares.....	149

3. taldea:


1. saria: Benetako aberastasuna. Jon Errasti.....	153
2. saria: Herrian erosi. Jon Errasti.....	155

Koldo Eleizalde literatur lehiaketak 37 urte bete ditu honakoan, eta osasun betean dagoela begibistakoa da; edizio honetan jasotako lanak ikusi besterik ez dago.

Beste urte batez, bergararrok erakutsi dugu hemen euskaraz bizi den herri bat dagoela, eta euskaraz sortu eta gozatzeko hautua egina dugula. Eta horrela izan dadila etorkizunean ere. Parte hartzaile guztiei eskerrik asko, eta sarituei, nola ez, zorionak. Liburu hau esku artean duzun horrek, berriz, goxo irakur dezazula.

Ekaitz Aranberri


Herritarren batzordeko burua



Lea Alberdi

Lehenengo taldea
Saria

IPUINA
Zuhaitz misterioetsua



ZUHAITZ MISTERIOTSUA

Bazen behin Txuri izeneko txakur bat. Bere jabeak paseatzera eramaten zuen bakoitzean Txuri zuhaitz batean gelditzen zen beti. Egun batean, zuhaitz hori dir-dir egiten hasi zen. Seinale bat zen. Mundua salbatu behar zuen. Eguzkia oso gertu zegoen eta Lurra erditik zatitzeko arriskua zegoen.

Txuri bertatik pasatu zen eta zuhaitzak super botereak eman zizkion: azkar-azkar joan zitekeen, pertsonekin hitz egin zezakeen eta espaziora hegari joan zitekeen.

Egiptora joan zen hura zelako Eguzkitik hurbilen zegoen herria. Agintariei dena azaldu zien eta pentsatu zuen ispilu handi-handi bat hartu eta Eguzkiak ematen zuen isladarekin eguzki izpi horiek beste planeta batera bidaltzea. Ispilua kendu zutenean zuhaitzak azken super boterea eman zion: indar infinitua.

Txurik, indar horrekin, Lur planeta beherago bidali zuen, Eguzkiarekin ez erretzeko.

Eta, azkenean, denok pozik geratu ginen.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Angiozarko plazan.



Ekhi Irizar

Lehenengo taldea
Saria

IPUINA
Neskato sorgina



NESKATO SORGINA

Bazen behin Pepita izeneko neskato bat. Gau batean sorgin bat zela amestu zuen. Hurrengo egunean, sorgina izan nahi zuen. Sorginez mozorrotu eta erratza hartu zuen, baina ezin zuen hegan egin. Orduan, propulsaizaile batzuk jarri zituen, baina ez zuen lortu hegan egiterik.

Gau batean, bururatu zitzaion mendira joatea benetako sorgin baten bila. Mendian sorgin bat topatu zuen Pepitak, eta zera esan zion:

—Sorgina, sorgina! Eman zure superboteak.

Baina sorginak ez zion superbotererik eman.

Sorgina bere etxerantz abiatu zen lotara. Orduan, Pepitak segitu egin zion espiatzeko asmoarekin.

Sorgina lo zegoenean erratza lapurtu zion eta etxera itzuli zen. Pepita nahastuta zegoen. Ez zekien erratza erabiltzen. Bueltak eta bueltak eman zizkion erratzari, baina ezer ez. Azkenean, botoi bat aurkitu zuen erratzaren ileen artean. Botoia sakatu eta bat-batean superboteak eskuratu zituen.

Hurrengo egunean, sorgina esnatu zenean, erratza ez zegoela ikusi zuen. Sorgina erratzaren bila hasi zen mendian, baina ez zuen aurkitu. Orduan, sorgina herrira jaitsi zen eta etxe guztietara sartu zen bere erratzaren bila.

Pepitak zortea izan zuen, herriko azkeneko etxean bizi zelako. Sorgina oso alperra zen, eta hara iritsi baino lehenago nekatu egin zenez,

IPUINA

etxerantz alde egin zuen hurrengo egunean jarraitzeko asmoarekin.

Pepita enteratu zen sorgina herrian zebilela eta oso beldurtuta zegoen. Pepita erratza ezkutatzan saiatu zen, baina oso handia zenez ez zuen gordeleku egokirik topatzen. Azkenean, ganbaran gordetzea bururatu zitzaion.

Pepita ohe azpian ezkutatu zen. Gaua han pasatuko zuen.

Hurrengo egunean, ganbarara igo, erratza hartu, botoia sakatu eta hegan ateratu zen. Pepitak beldurra zuen, ea herriko jendeak sorginari abisatu eta aurkituko ote zuen.

Hegan ordu asko egin ondoren, mendi-tontor batera iritsi zen. Han iratxo eta adarbakar batekin egin zuen topo. Eta lagunak egin ziren. Pepitak beraien izena zein zen galdetu zien.

—Ni Endika naiz —esan zuen iratxoak.
—Eta ni Irrintzi —esan zuen adarbakarrak.

Pepitak erratza hartu eta hegan irten zen. Orduan, Endika Irrintziren gainera igo eta Pepitaren atzetik joan ziren.

Bat-batean, Pepitak zuhaitz baten kontra talka egin eta erratza apurtu zen. Negarrez hasi zen, baina sorgin bat agertu zen eta erratza konpondu zion. Sorginak begiratu eta galdetu zion:

—Kaixo! Ni Meri naiz. Sorgina zara?
—Ez. Erratza laga didate —esan zion gezurretan.

Orduan, beste bi lagunei deitu eta hirurek berriz alde egin zuten. Merik ez zion Pepitari sinetsi eta bere nagusiarengana joan zen.

—Nagusi! Topatu dut neskatoa —esan zion.

Orduan, Meri eta sorgina korrika atera ziren neskatoaren bila. Ordu-rako lagunak herrian zeuden. Sorginak ikusi zituenean, bahitu egin zituen.

- Erratza ematen badidazu libre izango zarete. Ja, ja, ja...
- Nire lagunak askatu eta emango dizut erratza —esan zuen Pepitak.
- Ez! —erantzun zuen sorginak.
- Bai! —esan zion Pepitak.
- Ezetz —sorginak.
- Baietz! —Pepitak.
- Bale! —garrasi egin zuen Merik.
- Sorgina! Mesedez, aske utzi lagunak eta Pepitak erratza emango dizu.

Orduan, sorginak lagunak askatu zituen eta esan zion Pepitari:

- Eman erratza oraintxe bertan.
- Ados! Tori zure erratza —esan zion Pepitak.

Sorginak eta Merik alde egin zutenean Pepita barrez hasi zen.

- Zer gertatzen da, Pepita? —galdetu zion Irrintzik.
- Ez diodala benetako erratza eman —erantzun zion Pepitak.
- Erratza IKEA dendako erratz bat da eta, noski, erratz horrekin ezin du hegan egin.

Bitartean, Meri eta sorgina amildegi sakon batera iritsi ziren. Sorginak askotan zeharkatzen zuen amildegia erratzarekin bere etxera iritsi ahal izateko. Baina, egun horretan, amildegirantz hurbildu eta salto egin zuenean IKEAko erratzak ez zion funtzionatu eta erortzen zen bitartean oihukatu zuen:

- Pepita madarikatuaaaaaaaaa!

Plof!



Anouk Izagirre

Lehenengo taldea
Saria

IPUINA
Dotofiren bidaia



DOTOFIREN BIDAIA

Bazen behin Dotofi izeneko neskaxa bat. Bidaiak asko gus-
tatzen zitzaizkion eta abenturak ere bai.

Egun batean, Dotofi mendira joan zen eta tximeleta zuri-zuri bat ikusi
zuen bere buru gainean.

Hauts berezi bat bota zion tximeletak eta, orduan, Dotofik lehen gi-
zakien arropa jantzita zuela ikusi zuen. Bere gorputzera begiratu eta
harrituta geratu zen.

Bat-batean, mamut bat korrika zegoela konturatu zen eta lantza luze-
luze pila bat atzetik zetozeela ikusi zuen.

Dotofi lehengo toki berean zegoela konturatu zen, baina orain dela
100.000 urte. Orduan, kobazulo bat ikusi zuen. Bertan zegoela, 50
lehen gizaki agertu ziren. Segituan, lagunak egin ziren eta Dotofik sua
egiten eta ehizatzen ikasi zuen.

Dotofik esan zien:

—Ni tximeleta zuri bati esker etorri naiz zuen garaira. Nahi al duzue
tximeleta aurkitu eta nire garaira joan, gure tresnak ikusteko?

Lehen gizakiek ez zuten ezer ulertu.

Orduan, batek tximeleta aurkitu zuen eta Dotofiren garaian azaldu zi-
ren dotore-dotore jantzita: oinetakoak, prakak, kamiseta....

IPUINA

- Guk hemen geratu nahi dugu! —esan zuten.
- Baina, zuek helduko zarete bizimodu honetara, lasai! Zuen garaia oso garrantzitsua da —erantzun zien Dotofik.

Orduan, lehen gizakiak triste jarri ziren, baina beraien garaira joan ziren.


Handik gutxira ume bat jaio zen eta Dotofi izena ipini zioten berarekin gogoratzeko.



Aimar Arzelus

Bigarren taldea
Saria

IPUINA
Baretxoak baratzean



BARETXOA BARATZEAN

Bazen behin animalia bat Baretxoa deitzen zena. Baretxoa Zeraineko ortuan eta zelaietan ibiltzen zen. Ortuari animalia mordo batekin batera bizi zen; adibidez, karakolekin, txindurriekin, tximeletekin eta kakalardoekin. Lagun artean oso zoriontsu bizi zen eta egun guztia jolasean pasatzen zuten.

Baina, egun batean, gizon indartsu bat baratzean agertu zen eta porruak jasotzen zegoela Baretxoa ikusi zuen eta poltsan sartu zuen.

Gizona egun osoa baratzean lanean egon ostean etxera joan zen, eta momentu horretan, bere bi seme txikiek aitak ekarritako poltsa zabaltu zuten. Bertan, Baretxoa aurkitu zuten eta txokolatea eman zioten jateko baina, bat-batean, Baretxoa gaixorik jarri zen.

Gaua oso gaizki pasatu zuen eta albaitariarengana eramatea pentsatu zuten. Albaitariak, Baretxoa ikusi ondoren, gizonari esan zion Baretxoak zuen arazoa oso erraz konpontzen zela. Baretxoa berriz baratzerara eramaten bazuten animalia sendatu egingo zen.

Orduan, bi umeek eta aitak Baretxoa Zeraineko baratzerara eraman zuten. Baretxoa bere etxera bueltatu zen eta bertan bere lagun guztiekin elkartu zen.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Zeraineko baratzean.



Elene Contreras

Bigarren taldea
Saria

IPUINA

Ane alienigena

ANE ALIENIGENA

Orain dela 1.000 urte Marten alienigenak bizi ziren. Batek Ane izena zuen. Berde-berdea zen. Hiru antena zituen eta hiru begi.

Oso pozik bizi ziren, baina, egun batean, Ane Martetik jausi zen eta Lur planetan bukatu zuen.

Han, etxeak, pertsonak, txakurrak eta katuak zeuden. Anek ez zekien zer egin. Orduan kohete batean bueltatzea pentsatu zuen, baina konturatu zen ez zekiela kohete bat egiten.

Laguntza eskatu zuen eta Bergarako biztanle guztiek lagundu zioten, baina konturatu ziren ez zeukatela materialik. Orduan, herriz herri joan ziren eta material birziklatua lortu zuten.

Kohetea egin eta poliki-poliki bueltatu zen.

Handik aurrera Bergarako zeruan batzuetan argi bat ikusten da. Ane da Martetik eskerrak ematen.



Garazi Eizmendi

Bigarren taldea
Saria

IPUINA
Hontzaren istorioa



HONTZAREN ISTORIA

Bazen behin hontz bat basoan bizi zena. Hegan hasi eta hegoa hautsi zuen.

Urtxintxarekin topo egin zuen. Urtxintxari galdetu zion ea bere etxean gelditu ahal zen. Ezetz esan zion, ume asko zituelako eta, bestela, denak elkarren gainean egongo zirelako.

Txantxangorriak ere ezetz esan zion. Denbora osoa abesten egoten zelako eta ez ziolako deskantsatzen utziko.

Katu amarekin topo egin zuen gero. Honek ere ezetz esan zion, katakumeak jolasten hasiko zirelako.

Hartz txikiari ere galdetu zion eta ezetz esan zion, anai-arreba asko zituelako eta oso handiak zirelako.

Gero, ahatearekin topo egin zuen eta honek ere ezetz esan zion, bere bost umeek zarata asko egiten zutelako.

Hontza berriro ibiltzen hasi zen. Ibili eta ibili basora iritsi zen eta barrura sartu zen. Orduan, hontzak, gaua bakar-bakarrik igaro zuen.

Hurrengo goiz osoa ibili eta ibili pasatu zuen hontzak, eta gero herri bat ikusi zuen.

Jendeak ez zion kasurik egin eta horrek tristatu egin zuen hontza.

Orduan, neska batekin topo egin zuen. Neska horrek hontza etxera eraman zuen eta zaindu egin zuen. Neskak animaliak sendatzen zituen, eta neskak esan zion sendatzen zenean etxera joan beharko

IPUINA

zela.

Bi aste eta gero, hontza sendatu egin zen eta hegan egiten hasi zen.






Egoi Etxebarria

Hirugarren taldea
Saria

IPUINA
Kirikinoaren abentura



KIRIKINOAREN ABENTURA

Bazen behin kirikino bat eskolan zirikatu eta baztertu egiten zutena.

Eskola horretan denak ziren ugaztunak, denek ilez estalitako gorputz ponpoxoak zituzten. Pelutxezkoak bezalakoak ziren denak, kirikinoa izan ezik. Berak punta zorrotzak zituen eta gainontzekoei ez zitzaien hori gustatzen; zatarra eta arriskutsua zela pentsatzen zuten. Hala ere, bazegoen katagorri bat bere laguna zena, bizilagunak zirelako eta egunero eskolara batera joaten zirelako.

Behin, liburutegira joan ziren bi lagunak eta liburu oso potolo bat hartu zuten. Etxean, liburua zabaldu eta konturatu ziren liburua magikoa zela.

- Hara! Liburu magiko bat da —oihukatu zuen kirikinoak.
- Egia da! Liburuan sartu ahal izango da? —galdetu zuen lagunak.
- Probatu egingo dugu —erantzun zion.

Liburuan sartu ziren. Sorgin bat agertu zen eta esan zien:

- Zuenak egin du! Je, je, je! Inoiz ez zarete liburu honetatik irtengo! Beno..., bada modu bat, baina ziur nago ez duzuela lortuko. Esango dizuet, hala ere. Bada ezkutuan dagoen harribitxi magiko bat. Ostadarraren koloreak ditu. Harribitxi hori topatu behar duzue liburutik irteteko —esan zuen barre maltzurrez eta desagertu egin zen.

IPUINA

Bi lagunak harribitxiaren bila hasi ziren eta ipotxen herrira iritsi ziren. Ipotxen lagunak izan nahi zuten, baina hasieran beldurra zieten.

—Zuen lagunak izan nahi dugu! Ez ezkutatu! —esan zuen kirikinoak.

Ipotxen erregea hurbildu zen eta esan zuen:

—Kaixo! Ni ipotxen erregea naiz. Beldurra dizuegu handiak zarete-lako.

—Lasai, guk zuen laguntza nahi dugu, besterik ez —esan zuen kirikinoak.

Gau horretan sekulako festa egin zuten. Biharamunean, esnatu eta janariz inguratuta zeuden. Ez zekiten zela eskertu. Lehen gauza janaria pilatzea izan zen, bidaian goserik ez izateko. Izan ere, bidaia luzea izan zitekeen, ez zekitelako non zegoen harribitxia.

Orduan, kobazulo batera joan ziren harribitxiaren bila. Egun osoa egon ziren zuloak egiten eta ipotxen etxera oso nekatuta iritsi ziren. Jan eta lo asko egin zuten.

Hurrengo egunean, gosalduta ondoren, harribitxiaren bila abiatu ziren. Oraingo honetan ipotxek ere lagundu zieten, aurreko egunean lur jota amaitu zutelako. Kobazuloan mapa bat topatu zuten harri baten azpian.

—Harribitxiaren mapa izango da —oihukatu zuen kirikinoak pozik.

—Orduan, goazen haren bila —oihukatu zuen lagunak pozik.

—Ipotxak, etorriko zarete? —galdetu zuen kirikinoak.

—Noski baietz! —erantzun zuen erregeak.

Egunak joan eta egunak etorri, laku batera iritsi ziren.

—Laku horretan dago harribitxia! —esan zuen kirikinoak pozik.

—Erakutsi mapa. Egia da! —erantzun zion lagunak.

—Baina, nork daki igerian? —galdetu zuen ipotxen erregeak.

—Nik dakit igerian —esan zuen ipotx batek harro.

Ipotxak uretara salto egin zuen buruz eta bost minutu egon zen ur azpian. Ipotx denak kezkatuta zeuden. Gutxien espero zutenean agertu zen ipotxa, harribitxia eskuan zuela.

—Aupa! Hurra! —oihukatu zuten denek pozez zoratzzen.

Agurtzeko unea iritsi zen.

—Datorren urtean etorriko gara —esan zuen kirikinoak.

—Datorren urtera arte! —erantzun zuten ipotxek pozik.

Hurrengo urtean kirikinoa eta laguna itzuli ziren. Handiagoak, indartsuagoak eta azkarragoak ziren. Oraingoan, aurreko urtean baino denbora gehiago gelditu ziren, gehiago dibertitzeko. Gainera, bazekiten non zegoen harribitxia.

Ipotxei lagundu zieten kobazuloan mineralak topatzen eta negurako egurra eta janaria pilatzen (hurra, intxaurreak, sagarrak, platanoak eta kiwiak, besteak beste).

Joateko ordua iritsi zenean harribitxiaren bila abiatu ziren. Oraingoan, katagorria sartu zen uretara eta bi minutu egon zen ur azpian. Agurtzeko ordua iritsi zenean, besarkatu eta pozik abiatu ziren kirikinoa eta laguna.

Ettxera iristean, gurasoei gertatutako dena kontatu zien eta beraz harro zeudela esan zioten. Kirikinoa geroz eta indartsuago sentitzen zen, edozeri aurre egiteko gai zela sentitzen zuen.

Hurrengo egunean, bizi izan zuen abentura kontatzen hasi zen eskolan, baina inork ez zion sinetsi, katagorriak izan ezik, noski! Gelakide harroputzenak gezurtizat hartu zuen eta zirikatzen hasi zitzaion, baina kirikinoak aurre egin zion eta hortik aurrera inork ez zen gehiago berarekin sartu.

Egun horretatik aurrera pozik bizi izan zen eta lagun berriak egin zituen.



Maialen Garcia

Hirugarren taldea
Saria

IPUINA

Paramoudren misterioa

PARAMOUDREN MISTERIOA

Paramoudrak ezagutzen dituzue? Istorio bitxi bat kontatzen hasi aurretik nire lagunak aurkeztuko dizkizuet; Paule, Inge eta Edorta dira nire lagunak eta guztiok Bergaran bizi gara.

Edorta nahiko alperra da, baina lagun ona. Inge oso dotorea da eta llargi izeneko txakur beltz haundi bat dauka. Paule, berriz, oso jakintsua da, dena galdetzea gustatzen zaio eta asko ikasten du.

Arratsalde euritsu batean erabaki genuen, hurrengo larunbatean lau-
rok Jaizkibelera paramoudrak ikustera joatea.

Paramoudrak Jaizkibelen, itsaso ondoan dauden harriak dira; harri-bola eta animalia formak dituzte, benetan ikusgarriak.

Goizeko bederatzieta gelditu ginen Edortaren etxe aurrean, San Martin Agirre plazan. Edortaren autoa Volkswagen zahar bat zen, baina niri asko gustatzen zitzaidan, abentura asko bizi izan ditugulako auto horrekin.

Paule goiz hartan oso goiz jaiki zen, Google-n paramoudren istorioak eta haien kondairak ikertzeko.

Jaizkibelera heldu ginen, autoa aparkatu eta itsaso ondora jaitsi ginen. Han ikusi genuen lehen gauza dortoka txikitxo bat izan zen. Ingeri dortokak asko gustatzen zitzaizkion eta dortokaren atzetik joan zen, baina paramoudren artean sartu zenean desagertu egin zen. Ez genuen inon topatzen dortoka; nolako ezustekoa!

Paule konturatu zen marea behean zegoela, eta bat-batean denoi deitu zigun goizean irakurritako kondaira azaldu nahi zigulako. Denok lurrean eseri eta berari begira jarri ginen.

—Badago kondaira bat esaten duena ilargi betea dagoen egunetan, paramoudrak ikustera joaten bazara eta marea igotzen bada, paramoudrak bustitzen direnean benetakoak bihurtzen direla, hau da, otso formakoak benetako otso bihurtzen dira, dortoka formakoak benetako dortoka eta foka formakoak benetako foka. Gainera, norbaitek animaliak bizirik ikusten baditu, berriro marea igotzen direnean oraindik ilargi betea badago, animalia horrek betirako bizirik egongo dira eta ez dira harri bihurtuko —esan zuen Paulek.

Bidean aurrera jarraitu genuen eta uretara sartzea pentsatu genuen. Ze ona zegoen!

Edortak esan zigun igerian jarraitu behar genuela zati batean, goitik bide arriskutsua ikusten baitzuen oinez joateko. Ados geunden denok, baina Ingek arduratuta jarraitzen zuen dortokagatik.

Uretatik irtetea zelai batera heldu ginen eta han beste istorio bat kontatu zigun Paulek. Baina hau ez zen paramoudrei buruz, Roland Garrosi buruzkoa zen.

Badakit denok pentsatuko duzuela tenislariari buruz nabilela, baina ez da bera, hegazkinlaria baizik!

Orain dela aspaldi, Roland Paris-Madril egiten zegoen hegazkinez, baina gasolina gabe gelditu zen zelai honetan eta hemengo baserritarrek lagundu zioten —esan zuen Paulek.

Roland gelditu zen zelai berean lau zaldi eder ikusi genituen eta Edortak esan zigun:

—Goazen zaldi gainean, eta horrela, marea igo baino lehen iritsiko gara!

Baina, Ingek esan zuen:

—Mesedez, ez duzu ba sinetsiko kondaira hori benetakoa denik?

Eta denok barrez hasi ginen.

Zaldi gainean segituan heldu ginen paramoudretara eta argazki batzuk ateratzen geundela marea igotzen hasi zen. Paule, Edorta eta ni itsasoari begira jarri ginen eta Inge gure aurrean eseri zen. Orduan, Ingek esan zion Edortari:

—Ja, ja, ja... Edorta! Ez duzu usteko ba orain animalia formako harriek bizia hartuko dutenik, ezta?

Esaldi hori bukatzen zegoenean, denok berari begira geundela, konturatu ginen Ingeren atzeko harriak, elur-orein baten formakoa zenak, adar haundi batzuk zituela. Gure harridura aurpegia ikustean, Ingek buelta eman eta benetako elur-oreina zela konturatu zen.

Izututa, alde guztietara begira jarri ginen eta paramoudra guztiak bizia hartu zutela ikusi genuen, eta korrika hasi ginen denok. Inge oso azkarra izan zen eta ezkutaleku perfektu bat topatu zuen, kobazulo haundi bat.

Baina Edorta falta zitzaigun! Laster konturatu ginen Edorta kobazuloan barrena sartuta zegoela.

Oihuka hasi zen Edorta:

—Begira! Begira paretan dauden irudi hauek!


Bertan, gure paramoudren kondaira agertzen zen marraztuta, eta azkeneko irudian margotuta zegoenez, gure aurrean zegoen atea irekitzean edabe magiko bat zegoen.

Atea zabaldu eta edabe magikoa hartu genuen, eta haren ondoan mezu bat zegoen:

“Jaizkibeleko Biosnar izeneko itsas mendi puntan zabaldu potea, bota edabe magikoaren hiru tanta uretara eta bat-batean paramoudrak berriz harri bihurtuko dira.”

Halaxe egin genuen. Zaldi gaineen berriz ere korrika bizian Biosnarre-ra iritsi eta edabearen hiru tanta bota genituen. Eta orain, guri esker, paramoudrak geldi-geldi daude, denontzat ikusgai.

Joan zaitezte guztiok paramoudrak ikustera, eta kondaira oraindik gehiago gustatuko zaizue.



Haizea Sanchez

Hirugarren taldea
Saria

IPUINA
Basoan galduta



BASOAN GALDUTA

Las Brujas izeneko basorako txango batean, lagun talde bat sorgin bila joan zen. Sorginak zeudela egia ote zen jakin nahi zuten.

Euria hasi zuen eta aterpea hartu eta eguna pasatzeko lekua bilatzen hasi ziren. Kobazulo bat aurkitu zuten, baina pentsatu zuten agian hartz bat egongo zela eta ez ziren sartzen ausartu. Zarata handia egiten hasi ziren eta ezer ez zela gertatzen ikusi zutenean, sartzera ausartu ziren.

Linternarik ez zutenez, kobazuloa oso ilun zegoen. Mariori bururatu zitzaion aurkitu zituen adarrekin zuzi bat egitea, baina bustiak zeuden eta ez zuten argitzen. Pedrok motxilan zeraman alkandora bat eman zion eta sua eman zionean lehor zegoela konturatu ziren.

Koba oso handia zen eta galeria askorekin. Ez zekiten nondik hasi sorginen bila, eta hiru talde egin zituzten. Sei lagunak binaka joan ziren.

Mario eta Pedro, eta Jon eta Koldo kobazuloaren erdira joan ziren. Galerietan banatu ziren.

Ana eta Miren beste bide batetik joanak ziren eta ausartak zirenez, pozik, abestu eta barre egiten zuten. Kobazuloaren sarreran zegoen harkaitz bati soka bat lotu zioten eta horrela askatzen joan ziren, apurka-apurka, ez galtzeko. Estalaktita asko aurkitu zituzten. Euren farolekin argiztatuta, distira egiten zutenean kolore asko ateratzen ziren. Hainbeste koloretako distira edukita, sorginak aurkitu zituzten.

Oihu egin zieten mutilei eta soka jarraitzeko esan zieten, baina sarrerara iritsi zirenean ez zuten sokarik ikusi eta ez zekiten zein bide hartu. Eskuinera joatea erabaki zuten, eta han zeuden neskak, oso

IPUINA

pozik, sorginak aurkitu zituztelako. Mutilak, berriz, aho zabalik geratu ziren kobazuloak ematen zituen argi guztiak ikusi zituztenean. Baina ez zuten sorginik ikusi. Jada ez zien axola, ikusten ari zirena zer bait magikoa zelako. Ezin zioten utzi kobazuloko distirei begiratzeari.

Kobazulotik irten zirenean zer egin behar zuten pentsatzen ari ziren. Mirenek esan zien hobe zela linterna handiak ekartzea, kobazuloa hobeto argitzeko eta dena ikusi ahal izateko.

Hurrengo egunean, denetarik ekarri zuten, linternak eta poltsak kolo-reak sartzeko, altxor bat zutelakoan.

Kobazuloan sartu zirenean ikusi zuten ez zela linternarik behar sabaian zulo bat zegoelako, eta orduan konturatu ziren hormak urrezkoak zirela.

Kobazuloa existitzen zela frogatzeko argazki bat atera zuten. Argiak saltoka hasi ziren eta lagunak beldurtu egin ziren, barre egin eta ihes egin nahi zuten, baina hankak ez zitzaizkien mugitu, lurrera itsatsita egongo balira bezala.

Bat-batean, emakume bat agertu zen; sorginetako bat zen. Esan zien utziko ziela kalera irteten han bizi ziren sorginak gaiztoak ez zirela esaten bazuten, maitagarrien antzekoak zirela. Eta inork ez zekien bizi zirenik, beraz, soka hori ez zen basoko inondik inora ikusten.

Sei lagunek, hori entzutean, esan zioten ados zeudela, ez ziotela inori esango han bizi zirenik. Horren truke, sorgin maitagarriak kobazulo guztia erakutsi zien eta beste sorgin guztiak ere aurkeztu zizkien.

Kobazulotik irten eta betiko sekretua izango zen. Inori inoiz esango ez ziotela zin egiteko ituna egin zuten eta urtero leizera itzuliko zirela maitagarriak bisitatzeraz.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila sorginen kobazuloan!!!

Maite Errasti

Laugarren taldea
1. saria

IPUINA
Lagun bereziak



LAGUN BEREZIAK

Begoñazpi ikastetxeko DBH 3. mailako ikasleak gelan daude. Azkenaldian, gela honetan sentsazio arraro bat sumatzen da; agian nerabezaroan daudelako ikasleak... ez, ez da hori bakarrik. Irakasleak ere ohiz kanpo daude. Bereziki, Aitor irakaslea.

Gaurkoan, maisu honekin dute klasea. Normalean Aitor maisurik gogokoena da, bere txantxengatik eta giro onarengatik. Gaur, ordea, zerbait bueltaka ari zaio bere burutik denbora guztian. Eta esan beharra dago ez dela arazo txiki bat. Arazoa konpontzeko, klase hau eta gero bilera bat dauka, eta bertan dena argitzea espero du. Zoritarrez, ikasleek ez dakite zer gertatzen zaion, eta kezkatuta daude ez baitakite nola lagundu. Beraz, klasea oso triste dagoenez Ametsek zerbait egitea erabaki du. Mutikoa ikasle popularra da. Hau da, mundu guztia bere atzetik dabil beti, eta ikastolako liderra dela kontsideratu daiteke. Horrez gain, saskibaloiko taldean dagoen jokalaririk onena da, eta neska guztiak begira ari dira beti lerdea dariela. Zoritarrez, ez daki jendeak benetan bere laguna izatea nahi duen edota popularra izateagatik hurbiltzen diren berarengana. Amets azkarra, begi berdeekin, altua, gihartsua, atsegina... mutil perfektua da! Bere gelakideek hori ikusten dute beti kanpotik, baina ez dakite nola dagoen barrutik, bere gurasoak bananduta daude eta nahiko gogorra izan dela berarentzat, nahiz eta bere gurasoak jada ondo konpondu elkarrekin; ez dakizkite bere beldurak, nahiak, ametsak etab. Pertsona batek bakarrik ezagutzen ditu bere pentsamenduak: Aitor maisuak. Irakasleak oso ondo ezagutzen du mutikoa, eta bikaineko harremana dute elkarren artean. Horregatik, Ametsek txantxa bat kontatzea erabaki du giroa hobetzeko.

—Aizue! Hona hemen txiste bat —esan du:
Soldadu batek galdetu dio beste bati:

IPUINA

- Zertan ari zara?
- Hemen! Emazteari idazten!
- Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

Ikaskide guztiak parrez lehertzen hasi dira, Aitor eta neskatila bat izan ezik. Amets konturatu egin da, eta barre egiteari utzi dio. Aitor beti izaten da horrelako txantxak egitean barrezka hasten den lehena. Horregatik, Amets arduratu eta harritu egin da aldi berean. Egia da ere barre egin gabe gelditu den neskatilarengan lehen aldiz erreparatu duela. Ez daki nola deitzen den, eta zerbait interesgarria duela pentsatu du.

Neskak Kattalin du izena. Ez du barrerik egin txantxagatik, ez baitu entzun. Hau da, ez da gorra, baina ez du kasurik egin klase guztian. Modazko aldizkari bat irakurtzen ari da. Badaki gaurko Gizarteko klasean ez dutela gauza handirik egingo, eta gainera nahiko aurreratuta dago ikasgai honetan.

Txikitatik dago ikastetxe honetan, nahiz eta beti saiatu den arreta gehiegirik ez pizten. Neskatila ñimiño bat zenean, alaia eta dibertigarria zen; gehienbat familiarekin zegoenean. Ikastolan, ordea, nahiko lotsatia zen ikaskideekin.

Tamalez, azken bolada honetan bakarti eta egoskor dago mundu guztiarekin. Bere ingurukoak oso kezkatuta daude, Kattalin bakarrik nota onak ateratzen pentsatzen ari delako. Nerabeak ez zaiola ezer gertatzen ziurtatzen du, baina, egia esan, ez da batere ondo sentitzen; inbidia sentitzen du, aldizkarietan agertzen diren emakumeez. Beti hain bizitza perfektuekin, gorputz zoragarrieekin, hortz zuri-zuriekin... Mundu horretan sartuta dago, eta bakarrik horretan eta ikasketetan pentsatzen du.

Momentu honetan, txirrinak jo du. Ikaskide guztiak errekreora bideratu dira, eta Aitor gelan gelditu da, norbaiti itxaroten. Bost minutu geroago, aita batek atea jo du, eta Aitorrek sartzeko eskatu dio. Hona

hemen arazoa: Oraintxe bertan sartu den gizona Ametsen aita da. Gauza da bere emaztearengandik banantzen ari dela, eta bere sexualitateari buruzko zalantzak ditu; izan ere, adarrak ipini dizkio bere emazteari Koldorekin –Ametsen aita–. Beren artekoa mozteko deitu dio Aitorrek Koldori.

—Beitu, Koldo. Nik oso gustuko zaitut. Baina gure artekoa ezinezkoa da —hasten da Aitor.

—Zergatik?

—Ni 15 urtez egon naiz ezkontuta nire emaztearekin, eta inoiz ez nuen imajinatuko nire sexualitateari buruzko zalantzak izango nituenik. Homosexuala naiz, eta onartzen dut. Ordea, beldurra diet ikasleei eta nitaz pentsatuko dutenei. Eta zer esanik ez Ametsez. Oso harreman estua daukat berarekin, eta gure artekoak zapuztu egingo duela dena uste dut.

—Ez esan hori, mesedez. Nik badakit ezingo naizela inoiz ahaztu zutaz; zure argitasunaz, gorputz argal hartaz, txora-txora eginda naukan ile belzdunaz eta baita zure irribarre politaz.

—Koldo, mesedez ez egin gauzak oraindik zailag...

Une hartan, Koldok bere ezpainak ipintzen ditu Aitorren ezpainetan, eta horrekin bakarrik beren maitasuna ezer baino handiagoa dela ziurtatzen dio bere maitaleari.

Gelan guzti hau gertatzen ari den bitartean, errekreoan Kattalinek bere aldizkarian dauka sartuta burua. Neskatile emakume modelo batzuei buruz irakurtzen ari da, eta nola argaltzeko ‘tip’ batzuk ere. Oso kezkatuta dago ematen duen irudiari buruz eta bere inguruko neskak baino gutxiago sentitzen da. Bere kasuan, gorputz nahiko lodia du, braketak eta betaurrekoak erabiltzen ditu, eta ez ditu begi berde edo urdinik. Kattalinek ez daki zer egin, desastre hutsa dela pentsatzen du. Horregatik, aldatu egingo duela erabaki du. Berak ere bizitza perfektu bat nahi du. Lehenengo, ez duela ezertxo ere jango adostu du bere buruarekin, eta baita egunero bi orduz korrika egitera joango dela ere. Bat-batean, Amets gerturatu zaiola konturatu da, eta ahal duen bezain pronto ezkututzen du aldizkaria. Ez da mutikoaz

IPUINA

fidatzen, ez du bere irribarrea sinisten, eta badaki zerbait ezkutatzen duela. Baina ez daki zer. Mutikoari begira gelditzen zaio, eta Ametsek nola duen izena galdetu dio.

- Kattalin —esan dio siku neskatoak.
- Izen polita... Eta Kattalin, zer ari zara irakurtzen? —jarraitzen du Ametsek.
- Ez zaizu axola
- Ongi da, barkatu. Ez nizun gogaitzerik nahi. Gero arte...

Kattalin gaizki sentitu da emandako erantzunarengatik, eta Ametsi deitzen dio berriro. Honek buelta erdi eman eta Kattalinengana hurbiltzen da. Neskak zer gertatzen zaion azaltzen dio. Interes handia ikusten du Ametsen begietan. Mutilak perfektua dela ziurtatzen dio hainbat aldiz, baina ez du aldatuko hartutako erabakia.

Hiru aste geroago, Koldo eta Aitor mutil lagunak dira. Oso pozik daude; halere, ez diote inori kontatu ezer. Horrez gain, Kattalin eta Amets lagun oso onak egin dira, eta bata besteaz guztia dakite. Zorigaitzez, Kattalinekin pila bat kilo kendu ditu, eta denak ari dira oso guapa dagoe-la esaten. Horrek oraindik gehiago argaltzera bultzatu du neskatila. Amets asko arduratu da, eta halako egun batean, Kattalinen gurasoei azaldu die egoera.

- Baina ez da posible! Gurekin jaten du egunero, eta plater nahiko handia ipintzen diot —esan du aitak.
- Egia da; alabaina, konturatzen ez zaretenean janaria zakarrontzira botatzen du, edo mahai-zapian gordetzen du.
- Ai, ai, ai... Zerbait egin behar dugu, Antonio —kezkatu da ama.
- Bai, egia da.

Gurasoak ez dira besoak gurutzaturik gelditu, eta elikadura-nahas-menduen portaerei buruz dakien pertsona batengana joango direla adosten dute Kattalinekin. Neskak ezezkoa eman die hasieran; dena den, aitak eta amak konbentzitu egin dute.

Kontsultara heltzean, hainbat galdera egin dizkio medikuak; zenbat kirol egiten duen, zer jaten duen, hilerokoari buruz ere hitz egin dio... Kattalin orain konturatu da ez duela hilerokorik orain dela hiru egune-tatik, eta bitxia iruditu zaio oso erregulatua duelako. Medikuak anore-xia duela adierazi dio, eta ez badu orain zerbait egiten oraindik gau-za txarragoak gertatuko zaizkiola ziurtatu dio; horien artean, anemia, idorreria kronikoa, larruazal deshidratatua, ile galera, bihotz-gelditzea edo presio arterial baxua eragin dezaketen arritmiak. Gurasoak eta Kattalin oso kezkatuta gelditu dira, eta medikuak hainbat pauso edo ideia eman dizkio Kattalini arazoa gaingintzeko. Kontsultatik irten eta, merienda ordua denez, amak bokadillo bat eman dio Kattalini. Hasie-ran, nazka eman dio jateak. Ondoren, ezin duela azaldu die gurasoei. Eta hauek behar duen denbora guztia emango diotela esan diote, ara-zoa ez duela berak bakarrik gaingintuko.

Hurrengo egunetan, nahiko ondo jan du Kattalinekin. Egun hauetan ez da ikastolara joan nahiko nekatuta eta ahul egon delako. Dena den, aste batera askoz hobeto dago, eta Begoñazpira itzuli da. Bertan, ikasle guztiek galdetu diote zer gertatu zaion, baina berari lotsa ema-ten dio gertatutakoak. Beraz, ez du ezer esaten. Amets hurbildu zaio halako batean, eta faltan bota direla ziurtatu diote elkarri.

Lehenengo orduan, Aitor maisuarekin dute klasea. Ikasleak gelara sartzean liluratu egin dira, Ametsen aita ere bertan dagoelako. Ikasle guztiak beren lekuetan esertzean horrela hasi da irakaslea.

- Egun on guztioi. Segur aski ezagutuko duzue Koldo, Ametsen aita. Gaurkoan, lehenik eta behin, ez dugu klase normala egingo. Gaur tutoretza bat egingo dugu; izan ere, nahiko giro deseroso batean ibili gara azken bolada honetan. Ez al duzue uste?
- Bai, egia da —esan dute ikasleek.
- Ongi da. Beraz, lehenengo bakoitzak dituen arazoak edo pentsa-menduak adieraziko dizkie gelakideei.

Gela osoa isilik gelditu da, lotsa ematen baitie.

IPUINA

- Baaale, ni hasiko naiz —jarraitu du Aitorrek—. Lehen esan dudan bezala, hau Koldo da. Dakizuen bezala nik emazte bat daukat —denek baietz esaten dute—, baina banantzen ari naiz.
- Eta zergatik? —galdetzen du Maialenek.
- Konturatu naizelako ez zaizkidala emakumeak gustatzen, baizik eta gizonak. Eta nire bizitzako gizona Koldo da.


Denak aho zabalik gelditu dira eta Ametsek salto egin du.

- Nola? Hori zen gertatzen ari zena etxean? Benetan? Egia da gogorra dela, baina ez dut uste Aitor baino bigarren aitarik hobeago bat izango dudanik. Nik pentsatzen nuen norbait hil dela familian.
- Ez, Amets. Gauza da Aitorrek zoriontsuago egiten nauela zure amak baino. Barkatu egidazu, seme —adierazi du Koldok.
- Barkatu zergatik? Zu zoriontsua bazara ni ere bai, aita.

Besarkada bat eman diote elkarri, eta denak txaloka hasi dira. Ikusten denez, ikasleek asko dakite gai honi buruz, eta oso ondo hartu dute beren irakaslea homosexuala izatea.

Hortik aurrera, gela guztia hasi da bere arazoez hitz egiten, baita Kattalin ere. Gelakideek pena galanta hartu dute, eta laguntzeko prest daudela ziurtatu diote Kattalini.

Bakoitzak bere arazoak dituela konturatu dira, eta normala dela ere. Pertsonak beldurrak, ametsak, nahiak, penak... denetik dute. Gauza da nola egiten diegun aurre arazoei!



Julen Badiola

Laugarren taldea
2. saria

IPUINA
Bidean aurrera



BIDEAN AURRERA

Euria belar bustiaren gainean erortzen zen eta baloia azkar mugitzen zihoan, mutil beltzaran mehe batek bere ezker oinarekin aurreratzen zuen bitartean. Futbol-zelaia bukatzen zen marrara heltzean gogor jo eta ate ingurura bota zuen airean. Atezaina atetik irten eta jauzi txiki bat eginez bi eskuekin hartzekotan zegoenean, bat-batean mutil ilehori indartsu bat agertu eta atezainari aurreratuz baloia buruarekin jo eta guztiz norabidea aldatuz ate barruan sartu zuen. GOOOOOOOOOOOL!!!!!! Peruk beste gol bat sartu zuen, hogeita bosgarrena hemezortzi partidatan, Errealeko gazte mailako goleatzaile nagusia zen; begi guztiak beragan jarriak zeuden. Errealean jokatzear gain, Euskal Selektzioan ere jokatzeko zuen, eta Real Madril, Bartzelona eta Ingalaterrako hainbat taldek bere jarduna jarraitzen zuten. Horrelakoa zen Peru, aurrelari peto-petoa, goleatzaile bikaina eta mutil jatorra.

Peru Donostian bizi zen bere aita, ama eta bi arrebeekin. Batxilergoa ikasten zuen Usandizaga Ikastetxean eta lagun asko zituen. Peruk Errealean jolasten zuen hamar urte zituenetik, eta hamabost bete zitueneko lehenengoz deitu zioten Euskal Selektziotik. Urte berezia ari zen bizitzen Errealean. Beraien ligan lehenak zihoazen bost partida faltan denboraldia amaitzeko; bigarrena, Bartzelona, hiru puntura zegoen eta hurrengo partida Bartzelonan jolastu behar zuten Bartzelonaren aurka. Galtzen baldin bazuten, Bartzelona lehenengo jarriko zen sailkapen nagusian, eta Bartzelonara irabaztera joan behar ziren

IPUINA

liga irabaztea nahi bazuten. Errealari geratzen zitzaizkion partidak ez ziren bat ere errazak.

Partida hasi baino lehen Peru ez zegoen ondo, entrenatzaileari hankan mina zuela esan zion, baina entrenatzaileak ez zion kasurik egin. Peru euren jokalaririk onena zen, txapelketako goleatzaile nagusia eta denboraldiko partidarik garrantzitsuena jokatu behar zuten.

Lehenengo hamar minutuetan Bartzelonak bi gol sartu zituen eta atsedenaldira 2-0 galtzen heldu ziren. Peruk ia ezin zuen korrika egin, baina entrenatzaileak ez zuen aldatu, gaizki egonda ere, golen bat sartzeko gai izango zela uste zuelako. Bigarren zatia hasi bezain laster, Peruk aukera garbia izan zuen gola sartzeko, baina minaren ondorioz ezin izan zuen baloia ondo jo eta kanpora bota zuen. Hortik aurrera Peruren taldea aukerak sortzen hasi zen, eta azkenean Peruk bi gol sartu eta partida berdintzea lortu zuten. Hiru minutu falta zirenean partida amaitzeko, Peruk baloia hartu eta jaurtitzera zihoala, aurkari batek baloia kentzeko ahaleaginean sarrera gogor bat egin zion eta lurrean gelditu zen minduta. Epaileak penalti adierazi zuen, baina Peruk ezin izan zuen jolasten jarraitu. Penaltia bere taldekide batek jaurti behar izan zuen; bi pauso atzera egin, arnasa sakon hartu eta baloia jaurti zuen, baina ez zen ate barruan sartu. Azkenean partida binako berdinketarekin bukatu zen.

Peruri, ospitalean tibia eta peronea hautsita zituela esan ondoren, bost hilabete futboleko jolastu gabe egon behar zela esan zioten. Medikua-
ren berria entzun bezain laster oso triste jarri zen, berari gustatzen zitzaion kirola ezingo zuelako egin denbora batean; eta hori gutxi bali-
titz, bere ametsa Euskal Selektzioan jolastea zen, eta hurrengo astean zuen partida.

Peru bere taldearen partidak ikustera joan zen, eta azkenean hirugarrenak geratu ziren, lehenengo Bartzelona eta ondoren Real Madril. Peruren falta asko sumatu zen, azkenengo hiru partidatan gol bakarra sartu zuten, baina Peruri txapelketako jokalaria onenaren garaikurra eman zioten. Ekipo asko saiatu ziren Peru fitxatzen, aukera asko eskaini zioten, baina bere ametsetako taldean zegoen, Errealean, eta ez

zuen Erreala uzteko asmorik.

Bi hilabete pasatu zirenean Peruri igeltsua kendu zioten. Tamalez oraindik denbora luzea geratzen zitzaion guztiz errekupeartzeko eta futboleant aritzeko. Sendagilearengana joan zenean, mendian aritzea ondo etorriko zitzaiola esan zion. Bi aldiz pentsatu gabe hurrengo egunean esnatu bezain laster txakurra hartu eta mendira joan zen. Peruri asko gustatzen zitzaion txakurrarekin mendian ibiltzea; gehienetan lasterketak egiten zituzten nor iritsiko lehenago etxera, baina oraingo honetan ezin izan zuten lasterketarik egin, Peru ez zegoelako guztiz ondo. Denbora asko kirolik egin gabe egon ondoren, Peru ez zegoen oso ondo lasterketak egiteko. Egunak pasa ahala, Peru egunero ikastolatik atera ondoren txakurrarekin mendi buelta bat egitera joaten zen. Geroz eta hobeto aurkitzen zenez, korrikan hastea pentsatu zuen. Hasieran motel joaten zen, erortzeko beldurra zuelako. Bestalde, errekupeazioa azkartzeko, Agustin izeneko fisioterapeuta batengana joan zen. Agustin gaztetan korrikan aritzen zen mendian, eta mendi-maratoiak ere egindakoa zen. Peruk Agustini mendian korrika hasi zela kontatu zionean, asko poztu zen. Mendi-lasterketen inguruan hasi ziren hizketan eta Agustinek aholkuak ematen zizkion; nola egin behar zuen korrika, nola jaitsi behar zen, ura edatea garrantzitsua zela eta, batez ere, beti aurrera begiratu behar zela, inoiz ere ez atzera.

Peruri asko gustatzen zitzaion mendian korrika egitea, eta herriko lasterketa baten parte hartzea pentsatu zuen. Agustini kontatu zionean, ikustera joango zela esan zion. Peruk ez zuen irabazteko asmorik, bere helburua ondo pasatzea zen. Lasterketa hasi zenean fisikoki oso ondo aurkitzen zen, eta bere erritmoan joan zen, baina inor ez zen gai izan berari jarraitzeko eta azkenean irabazi egin zuen. Lasterketa hartatik aurrera mendiko lasterketa gehiagotan hasi zen parte hartzen. Mendiko lasterketetarako gaitasun handia zuela konturatu zen, eta entrenatuz gero txapelketa asko irabazteko aukerak izango zituela, baina entrenatzaile bat behar zuen; bera ordura arte futboleant aritu zen, eta mendian korrika aritzen zen aditu bat behar zuen. Agustini eskatu zion bere entrenatzailea izateko eta honek gustura

IPUINA

onartu zuen eskaintza. Min hartu eta laugarren hilabetera guztiz sendatu zen. Bi kirolen artean hautatu behar zuen eta azkenean futbola aukeratu zuen. Peruk ez zuen mendiko lasterketarik uztea nahi, baina futboleant aritu nahi bazuen, utzi egin beharko zuen.

Futboleant jolasten hasi zenean ez zuen mendiko lasterketekin bezain beste gozatzen. Futboleant presio handia zuen eta ez zen batere ondo sentitzen. Aldiz, mendian ez zuen presiorik eta lasaiago aritzen zen. Partidak jolasten hasi zen, eta entrenatzaileak konturatu ziren ez zela betiko Peru. Entrenamenduetan ez zuen ematen berak zuen guztia, gogo gabe ikusten zen eta oso triste zegoen. Oso partida eskasak egiten zituen eta ez zuen golik sartzen. Beldurra zuen futbola uzteko mendiko lasterketetan aritzeko. Ez zen ausartzen inori esaten zer zen benetan berari gustatzen zitzaiona. Bere inguru guztiak Peru futboleant aritzea nahi zuen. Azkenean Agustini bere arazoa kontatu zion: futbola utzi nahi zuen mendi lasterketetan aritzeko, baina bere lagun zein familiak Peru futboleant aritzea nahi zuten. Agustinen laguntzari esker, futbola utzi eta mendiko lasterketetan aritzea lortu zuen, eta Agustín bere entrenatzailea izango zen. Hasieran arazoak izan zituen lagunekin, ez zutelako ulertzen Peru moduko futbol-jokalari batek futbola uztea mendiko lasterketetan aritzeko.

Poliki-poliki lasterketak irabazten hasi zen. Agustinek munduko lasterketa onena Zegama-Aizkorri zela esan zion, eta bertan parte hartu behar zuela. Zegamako giroa ez zela inon aurkitzen, ibilbide guztia jendez beteta, helmuga Zegamako plazan eta batez ere Sancti Espirituko maldak euskal zaletuz beteta, edozeini oilo-ipurdia jartzeko moduan. Munduko korrikalaririk onenak etortzen ziren Zegamara. Peru lasterketa hura prestatzen hasi zen. Agustinek mendian beti aurrera begiratu behar zela esaten zion. Hiru faborito zeuden: Thor Roskil norvegiarra, François Simon frantziarra eta Carles Esteve kataluniarra. Peru ez zen hain ezaguna, baina entrenamenduetan denbora onak egiten ari zen; irabazi zezakeen.

Heldu zen egun handia. Agustinek Sancti Espiritun egongo zela esan zion, bera animatzen. Dena prest zegoen eta bere aitarekin Zegamara

abiatu baino lehen telefono dei bat jaso zuen. Agustinek Zegamarako bidean auto istripu bat izan zuen eta larri eraman zuten ospitalera. Peruk ez zuen irten nahi, baina Agustinen emazteak ezin zuela ezer egin eta Agustinen omenez parte hartzeko esan zion.

Lasterketa ziztu bizian abiatu zen Zegamako plazatik eta berehala Peru buruan jarri zen. Lehenengoa igaro zen Sancti Espiritutik, Aizkorri gainean minutu bat ateratzen zion bigarren zihoan Thor Roskili eta bi minutu hirugarren eta laugarren zihoazen François eta Carlesi. Bestalde, Agustin ospitalean operatzen zeuden, oso larri zegoen, bere bizitzako lasterketarik garrantzitsuena zen.

Peru azken tontorrera, Andraitzera, hogeitaseko aldearekin iritsi zen; atzetik hirukotea zetorren, Thor, François eta Carles. Maldan behera hastean gainean sumatu zituen eta atzera begiratu eta ziplo lurrera erori zen; hiruak pasatu egin zuten. Belaunak minduta zituen, baina aurrekoak harrapatu nahian azkar abiatu zen. Gero eta hurbilago zituen; bere helburua podiuma lortzea zen Agustini dedikatzeko. Azken kilometroan sartu ziren eta Thorrek aurrera egin zuen, Carles eta François begi bistan zituen, hogeitaseko metro eskasera, baina azkenean ez zuen podiuma lortu. Bi segundorengatik laugarren amaitu zuen. Ezingo zion podiuma Agustini eskaini. Akabo bere ametsa. Helmugara heldu eta Agustin nola zegoen galdetu zion aitari, eta honek telefonoa eskaini zion Agustinen emazteari deitzeko. Urduri zegoen ez zekiela nolako albistea jasoko zuen; bere bihotz-taupadak lasterketan baino azkarrago zihoazen, eta zenbakia markatu eta segundo batzuk zain egon eta gero Agustinen emaztearen ahotsa entzun zuen beste aldean:

- Nola dago?
- Oso ondo, berarekin pasatuko zaitut.
- Zer moduz zaude?
- Ondo eta zuk nola bukatu duzu?
- Laugarren.
- Zure lehenengo Zegama-Aizkorri eta laugarren... Oso ondo dago.

Peru goibel zegoen ez zuelako podiuma lortu, baina Agustinen ahotsa entzun zuenean bizitzako gauza garrantzitsuak zeintzuk diren konturatu zen.


- Ez dut jarraitu zuk esandako aholkua, atzera begiratu dut eta erori egin naiz.
- Baina erortzean jaiki egin zara, eta hori da garrantzitsua.

Peruk bi gauza ikasi zituen: lehenik eta behin, bizitzan lasterketetan moduan aurrera begiratu behar dela; eta bigarrenik, helmugak baino garrantzitsuagoak direla bidean aurkitzen diren pertsonak.

Gorka Moreno

Laugarren taldea
3. saria

IPUINA
Zuri-beltzeko poza



ZURI-BELTZEKO POZA

Bazen behin mutiko bat, beste asko bezala, lñaki deitzen zena. 20 urte zituen. Bizkaikoa zen, Lekeitiokoa. Argala zen eta ile beltza eta luzea zuen, sorbaldetaraino iristen zitzaion. Dudatsua zen, bere amaren menpe zegoen, beti amaren baiezkoa entzun behar zuen erabakiak hartzeko. lñaki amarekin bizi zen, aita 5 urte zitue-nean hil zen eta.

Zuri-beltzeko bizitza batean bizi zen. 1980ko pelikula batean. Kutre, soso eta aspergarri batean. Egunero hogeit hamar minutu berdinetan trabatzen zen. Esnatu, kafea, lanera, eta ohera. Bukle batean, behin eta berriro.

lñaki aita hil baino lehenago, mutiko oso alaia zen, denekin irribarre bat botatzen zuen. Lagun oso onak zituen eta herrian ameslaria izateagatik ezagutzen zuten. Enpresaria izan nahi zuen, enpresa bat muntatzea. Gertaera katastrofiko horrek lñakiren bizitza guztiz aldatu zuen.

—Aita hil denetik, ez naiz pertsona berdina —esaten zuen.

Bere jefea gorroto zuen. Beti aginduak ematen:

—lñaki! Hiru informe behar ditut arratsalderako, ez galdu denbora!

IPUINA

Iñakik ez zuen ezer egiteko aukerarik. Soilik erantzun:

—Bai, noski.

Aurpegi triste eta aspergarri batekin egiten zuen lan. Dena zuri-bel-zekoa zen. Kafearen zaporea ere aldatu zen. Zapore gutxiago zuen. Kantoi batean zegoela sentitzen zuen. Zaborrarekin bat eginda.

Eta horrelako egun batean, saihestezina gertatu zen. Egun luze baten ondoren etxera bueltatzerakoan, hor ikusten du. Ama lurrean botata. Iñakik ezin zuen sinetsi, aita hilda eta orain ama ere. Paretak gaine-ra eroriko balitzaizkio bezala sentitu zen. Iñakik mugikorra hartu eta udaltzainak deitu zituen:

—Bai?

—Ka-kaixo, nire... nire ama lurrean dago.

—Bale, lasai, emango didazu zure helbidea?

—Larrañaga hiribidea 2. C

—Ados, oraintxe joango gara.

Malko hotz bat bota zuen, bere bizitza akabatuta zegoen. Ez zuen bizitzeko arrazoirik. Ez zen hain fuertea.

—Tok tok! Udaltzainak gara.

Atea irekitzera joan zen.

— Kaixo, gu gara. Ama medikuarengana bidaliko dugu.

Eta hor ikusi zuen, bere ama esku-ohe batean, anbulantziara sartzen. Anbulantziaren urdin eta gorri koloreko koloreak beltzak bihurtu ziren. Negar batean hasi zen, malko potoloak botatzen. Hainbeste iskanbi-larekin, bere lagun bakar Mikel bisitatzera joan zen. Mikel oso jatorra zen eta Iñakiren txikitako lagun bakarra. Eskolan ezagutu zuten elkar eta oso lagunak ziren. Malkoekin begietan gertatutakoa kontatu zion. Mikelek asko sentitzen zuen, eta besarkada handi bat eman zion. Iña-kik aspaldiko poza sentitu zuen. Psikologo batengana joatea gomen-datu zion Mikelek.

—Psikologo oso on bat ezagutzen dut, joan, probatu.

Iñaki estutasun eta itoaldiarekin etxera joan zen, Mikeli eskerrak eman, eta etxera bueltatzerakoan ohera sartu eta lo sakon batean sartu zen.

Begiak berriro zabaltzerakoan, jaiki eta jantzi egin zen. Kafetera hartu, eta kafe bat gertatu zuen. Etxeko giltzak eta aterkia hartu, eta Mikelek gomendatu zion psikologoarengana joan zen.

Egun euritsua zen eta hotz handia egiten zuen. Beraren bizitza hobetzeko asmoarekin joan zen. Psikologo hark oso fama ona zuen; Mikeli ere lagundu zion. Iñaki psikologoarengana iritsi, izena eman eta itxaron gelan sartu zuten. Hogeita hamar minutu itxoin zuen, ia lo hartu zuen. Bera bakarrik zegoen, arraroa iruditu zitzaion.

Bat-batean hirurogeita hamar urte inguruko zahar batek atea zabaldu zuen.

—Iñaki Lopez? —galdetu zuen.

—Bai, hemen nago —erantzun zuen Iñakik.

Sartzeko esan zion. Gela txiki batean sartu zen. Paretak beltzak ziren, baina dekorazioa kolore bizikoa. Berriz ere arraroa iruditu zitzaion. Zahar hori erotuta zegoela pentsatu zuen.

—Lehenik eta behin, zure burua aurkeztu —esan zion zaharrak.

Iñakik bere izena ezan zuen, eta berari gertatzen zitzaiona kontatu zion:

—Ez naiz pozik sentitzen, nire bizitza zakarrontzira bota dut. Ez dakit non dagoen poza.

Zaharrak Iñaki begietara begiratu zuen, finko eta adeitasunez, eta bi erantzun sinple bota zion.

—Zer da poza? Zerk sentiarazten dizu poza?

Ĺñaki nahastuta sentitu zen, eta zaharrak biharko galdera horiek pentsatzeko esan zion, eta saioa bukatu zela. Agurtu, eta Ĺñaki etxera itzuli zen.

Ĺñakik bere buruari galdetu zizkion zaharrak egindako galdera horiek. Ez zekien. Hainbeste denbora pasatu zuen triste, ia poza ez zuela sentitzen.

Mikelengan pentsatu zuen, Mikel zen poza sentiarazten ziona.


Hurrengo egunean, berriro psikologoarengana abiatu zen. Baina aurretik kafetegi batean sartu eta kafe goxo bat eskatu zuen. Izugarri usaintzen zuen, aspaldian ez zuen holako kaferik hartzen. Psikologoarengana iristean, zuzenean gela txiki horretara bidali zuten. Zahar horrek, berriro galdetu zion, eta Ĺñakik honela erantzun zuen:

—Ba, niretzat poza zeozer konplexua da, subjektiboa. Mikelek sentiarazten nau pozik, nire lagunak. Ah, eta kafetxoak goizean. Ah, eta nire enpresa muntatzeak, nire ametsak betetzeak —erantzun zuen harrotasunez.

—Hor duzu Ĺñaki. Zuk zeuk esan duzu zerk sentiarazten dizun poza. Hori zure egunerokoa izan dadila —erantzun zuen zaharrak.

Ĺñakik hor ikusi zuen bere bizitza hobetzeko egin behar zuena, aurpegi aurrean.

Agurtu, eta pozez bere amets eta desio guztiak asetzeko asmoarekin joan zen.



Libe Ugarte

Laugarren taldea
1. saria

POESIA
Ur azpian



UR AZPIAN

Ur azpian
bizitza, arnastu
ezin, atera
ezin.

Kanpoan hesi bat
dago, dena estalita,
errealitatera atera
ezin, zapalduta
sentitzea, arnas gabe
sentitzea erakartzen
gaitun hesia.

Kanpoko bizitzara egokitu, ur
kanpoan dauden pertsonak bezala
izan.

Ur azpiko
presioa, ezin
arnastu, ezin
bizi, ezin zu
izan.

POESIA

Ur azpiko sentimenduak,
denak negatiboak, itotzeko
beldurra, bakardadearen
angustia, taldean sartzeko
derrigortasuna, besteak
bezala sentitzeko presioa.

Ur azpiko
presioa, ezin
arnastu, ezin
bizi, ezin zu
izan.

Akatsak, akatsak egitean
urduritasuna. Zer esanik
ez, gaizki esatea, ongi
esatea, garrantzitsua
dela pentsatu.

Gizartearen
presioa, ezin
arnastu, ezin bizi,
ezin zu izan.






Ainhoa Pardina

Bosgarren taldea
1. saria

IPUINA
Desagertutako semea



DESAGERTUTAKO SEMEA

“**B**at, bi, hiru... bultza! Bat, bi, hiru... bultza! Bat, bi, hiru... bultza!”

Joxe hitz hauek entzun eta entzun ari zen, bere emaztearen eta beste bi emakumeren ahotik. Sokatira txapelketa zela zirudien, hala imajinatzen zuen gizonak, begiak itxita zituela; baina ez, hura beste txapelketa mota bat zen. Begiak irekitzen zituen noizbehinka eta sokatiran aritzeko zelai berdea ikustetik ospitale ilun bat ikustera igarotzen zen. Iluna zen ospitalea, inoiz ez zituen atsegin izan gaixotasunekin zein heriotzarekin zerikusia zuten gauzak, baina, oraingoan, ez zegoen burumakur; oso urduri eta sentimenduak gorputz barruan ezin gorde-ta, baina oso pozik eta gogotsu.

Oihuok bat-batean isildu ziren eta, momentu horretan bertan, zuriz jantzitako erizain bat hurbildu zitzaion:

- Kaixo, Joxe. Berri onak ditugu: zure semea, Peru, osasuntsu jaio da. Prest bazaude zatoz nirekin eta, nahi baduzu, besoetan har dezakezu.
- Benetan? Eskerrik asko! —emozioak non gorde ez zekiela, erizaina besarkatuaz jarraitu zuen—. Ezin dut sinetsi... Zazpi hilabete zain eta eman digun ezustekoarekin...
- Bai, susto ederra izan da bai... baina tira, ez du eraginik izango bi hilabete lehenago jaio izanak. Batzuetan horrelakoak gertatzen dira, baina ez dago zertan txarrena pentsatu... Ama-semeak primeran daude.

IPUINA

Solasaldiarekin amaitu eta zitzu bizian sartu zen aita bere semetxoa ikusteko ilusio handiz. Ez zuen bat ere pisurik eta, oso txikia zenez, ez zekien nola hartu. Ez zitzaion ba semea lehenengo aldiz hartu eta lurrera eroriko?

Behin semea ondo heltzea lortu zuenean guztiz lasaitu zen. Hura zen, hura, gauzatxo polita... Bere antzik ba ote zuen pentsatzen hasi eta, jaioberria izan arren, antzekotasunak aurkitzea lortu zuen. Begitxoe-tara begiratzen zion goxo-goxo bere besoekin babesten zuen bitartean. Egoera guztiz xamurra zen eta maitasuna besterik ez zen ageri gela hartan.

Zoritxarrez, lehengo erizaina berriro hurbildu zitzaion baina, oraingo honetan, ez zen umea ikus zezan, umea itzul ziezaion baizik. Pena handiarekin baina Joxek semea itzultzea onartu zuen. Baiezkoa eman zuen, bai, baina ez zekielako zer gertatu behar zitzaion: ez zekien, agian, ez zuela Peru gehiago ikusiko.

Bi egun geroago, haurra ospitalean lagata, senar-emazteak etxera itzuli ziren, baserria haurarentzat egokitzeo eginkizuna martxan jartzeko asmoz eta, noski, asmoa errealitate bihurtu zuten. Bertako animaliak zaintzeaz gain horrenbeste lan egitea guztiz nekagarria izan zen, baina mereziko zuela bazekiten, hori pentsatzen zuten behintzat. Egun batzuetan ez zuten euren semea ikusi, erizainek ez baitzieten uzten eta, zorigaiztoko egun batean, inoiz esperoko luketen dei gogorrena jaso zuten. Halaxe zion telefonoaren beste aldeko ahots zakar eta ezatseginak:

—Kaixo. Ospitaleko erizain bat naiz. Maritxu eta Joxe zarete?

—Egun on. Bai, halaxe gara. Zer gertatzen da? Peruri zerbait gertatu zaio?

—Sentitzen dut. Zuen semea hil egin da —jaurti zuen era baldar baiten.

“pipipiiii pipipiiii pipipiiii pipipiiii”

Deia moztu egin zen eta senar-emazteak negar zotinka hasi ziren. Euren bizitza zoriontsu eta ederra, une batetik bestera, zorigaiztoko

bihurtu zen; koloretako mundua mundu gris bilakatu zen. Euren eguzki maitea desagertu eta ekaitza nagusitu zen.

Berri txar hura jaso zuten momentuan behea jo zuten, irribarrea euren aurpegietan gehiago marraztuko ez zela zirudien, ez zegoen bietako inor animatzeko modurik. Horregatik, ironikoki, ordura arte zaindu zituzten abereak bihurtu ziren euren zaintzaile.

Batzuek pentsatuko lukete bi baserritarrok bizirik jarraitzen zutela baina, begiak ireki zitzaketen arren, toki batetik bestera mugi zitezkeen arren eta jan zezaketen arren, berri txar hark hil zituen bai Joxe eta bai Maritxu. Euren gorputzak bizirik zeuden, hala da; euren buru nahiz bihotzak, ordea, ez zuten gauza bera adierazten. Beraz, esan daiteke, jada, eurena ez zela bizitzea, bizirautea baizik, hau da, Perurekin batera desagertu zirela euren arimak.

Urteak joan eta urteak etorri... Joxe eta Maritxuren egoerak ez zuen hobera egin. Seme-alaba gehiago edukitzea pentsatu zuten baina, berriz gauza bera gertatzeko beldurraren ondorioz, atzera egin zuten biek. Beti zuten Peru gogoan... nola ahaztu, bada, hain denbora gutxian bada ere, gehien maite izan duzun pertsonatxoa? Guztiz ezi-nezkoa.

Urteak pasa zituzten telefono dei bakar bat ere jaso gabe, baina, bat-batean, hau zarataka hasi zen:

- Bai? Nor da? —jaurti zuen Joxek, deiak sortutako harridura ezkutatzen saiatzen zen bitartean.
- Kaixo, egun on. Martin daukat izena. Joxe eta Maritxu zarete?
- Bai... Sentitzen dut, baina ez dugu Martin izeneko inor ezagutzen...
- Lasai, badakit ez garela ezagutzen. Hala ere, zuekin hitz egitea gustatuko litzaidake. Baserritarrak zaretela uste dut. Hala da?
- Bai, Eudi-koak, hain zuzen ere, baina... nola dakizu zuk hori?
- Horrek ez du axola... Dena den, baserriaren izena Eduegi zelakoan nengoen... Tira, ez naiz gehiago luzatuko. Baserriko gauzak ikastea gustatuko litzaidake: bertako lanak, zuhaitz nahiz landareen izenak,

animaliekiko bizikidetz... Badakizu, horrelako gauzak... Beraz, horretarako, zuen baimena lortuko banu, denboralditxo bat zuen artean igarotzea gustatuko litzaidake, baserritarren kultura eta bizimoduaren barneratzeko. Posible litzateke?

Joxe zer erantzun jakin ezinda gelditu zen. Mutiko ezezagun bat hartzea komeniko zitzaion? Arriskutsuegia ote zen? Bere kabuz hartzeko erabaki handiegia zenez, Maritxuri proposatu zion: “Hi, Marixtu, Martin delako mutiko bat ari dun galdetzen ea denboraldi batean gurekin gera daitekeen, baserriko lanak ezagutu nahi omen ditin eta...”. Maritxuk, gehiegi pentsatu gabe jaurti zuen erantzuna: “esaiok baietz, ondo etorriko zaiguk”.

—Tira, gazte, baserriaren izena Eduegi da, bai, baina guztiok deitzen diogu Eudi. Baimenari dagokionez... ongi da... Egia esan, gaur egungo gazteek gauza gutxi dakite baserriari buruz eta euskalduen kulturaren parte desagertuko dela uste dut, horren ondorioz... Gainera, ez dut uste ez Maritxuri ez niri gaitzik egingo digunik gazte baten presentziak.

—Primeran! Eskerrik asko! Ondo badoakizue, bihar bertan joango naiz...

—Ados, bihar arte!

—Bihar arte, bai.

Martinek bere iraganari buruz gauza gehiago jakin nahi zituen; izan ere, gauza arraroak nabaritu zituenek, bere jakin mina ikaragarria zen. Adibidez, bere haurtzaroko argazki ugari zeuzkan, bai, baina bere amaren haurdunaldikorik ez zen inon ageri. Zerbaitegatik ote? Galdera horri erantzuteko, interneten eta hainbat lagunen laguntzaz ikertzen hasi zen, bere benetako gurasoak beste pertsona batzuk izango zirelakoan.

Gazteak ez zuen ziurtasunez baieztatzeko bezalako datu fidagarriarik aurkitu baina, hala ere, bi baserritarren berri jaso zuen. Joxe eta Maritxu ziren hauek eta, horregatik, beste arrazoirik gabe, hauengana joatea eta informazio gehiago lortzea erabaki zuen. Horrela, euren

baserriaren izena eta eurekin kontaktuan jartzeko zenbakia aurkitu zituen eta, noski, beraiegana jotzeko aitzakia aurkitu eta baimena eskatu zien.

Bi baserritarrek, Peruren heriotzaren berri izan zutenetik, lehenengo aldiz esperimentatu zuten tristura ez zen egoera bat: urduritasuna. Orduan konturatu ziren benetan on egingo ziela ikasteko eta laguntzeko gogoz joandako ezezagun bat etxean edukitzeak.

Esan bezala, hurrengo egunean, goizean goiz agertu zen Martin gizon-emakumeen aurrean eta Joxeren aurpegia ikusi bezain laster jakin zuen hura zela bila zebilen pertsona, bien arteko antza ikaragarria baitzen. Horrela, Joxe eta Maritxu ere zur eta lur gelditu ziren bi gizonen antzekotasunak ikusita.

Guztiek zuten gauza bera buruan: nor ote zen gaztea, Joxeren hurrenbesteko antza izan zezan? Benetan baserritarren semea ote zen? Martinen benetako izena Peru ote zen? Guztiek buruan galdera bera bazuten ere, inor ez zen ausartzen honi buruz hitz egitera, ez lehenengo egunean behintzat.

Pare bat aste igaro ziren Martin baserrian agertu zenetik baina, hala ere, honek ez zuen nahi beste informazio lortzerik izan. Horregatik, azkenean, gaia atera eta zuzenean Maritxuri eta Joseri bere kezka azaldu eta horri buruz galderak egitea erabaki zuen:

- Maritxu, Joxe... zuekin hitz egitea gustatuko litzaidake...
- Zer da, Martin? —galdetu zuen Maritxuk, mahai gainera gai mardul bat irtengo zela antzemanda.
- Egia aitortu behar dizuet... Ez naiz etorri baserriko lanak eta ohi-turak ezagutzera. Nire gurasoek ez didate egia kontatu nahi baina zerbait ezkutatzen didaten susmoa daukat...
- Zergatik diozu hori? —Joxeren aurpegiak jakin-mina islatzen zuen.
- Tira... nire txikitako argazki asko ditut baina nire ama haurdun agertzen den bakar bat ere ez... Horregatik, interneten ahal izan nuen informazioa lortu nuen, eta horrek zuengana ekarri ninduen... Gai-

IPUINA

nera, orain, nire susmoak indartzen ari dira, Joxe, zure antz ikaragarria baitaukat...

Bi baserritarrek ezin izan zituzten euren emozioak kontrolatu eta biak negar zotinka hasi ziren, galdeketa antzeko bati ekiten zioten bitartean:

- Zenbat urte dituzu? Noiz jaio zinen? —jaurti zuten Joxek eta Maritxuk, bien ahotsak ahots bakar bat bihurtuz.
- 18 urte ditut eta azaroaren 11n jaio nintzen —jaurti zuen Martinek, hitz egiteko zailtasunarekin, urduritasunaren eraginez.
- Non? —bi baserritarrek, batera.
- Nire gurasoek Donostian jaio nintzela esan izan didate beti, baina uste dut, interneteko informazioari begiratuta, Arrasateko ospitalean jaio nintzela...

Joxek eta Maritxuk elkarri begiratu zioten eta, oraindik negarrez, elkar besarkatu zuten. Esan dut negarrez jarraitzen zutela, bai, baina oraingoan malkoak ez ziren tristuraren ondorio, alaitasunarena baizik.

- Ezin dut sinetsi... Peru! —senar-emazteak elkar besarkatzeari utzi eta Martin, hau da, Peru, besarkatu zuten.
- Beraz, zuen semea naiz? —gaztea oraindik nahasita zegoen.
- Bai, ez dago zalantzarik! Jaiotze datak eta lekuak horixe erakusten dute eta, gainera, zure aitaren berdina zara, antz ikaragarria duzue!

Hirurak pozaren pozez negarrez eta saltoka hasi ziren, eta Peruk bere benetako gurasoekin bizitzea erabaki zuen, ordura arte gurasotzat izan zituen bi pertsona haiek alde batera utzita. Beraz, 18 urte horietan gertatutakoa elkarri kontatu eta eguneratu egin ziren.


Handik aurrera, Maritxu, Joxe eta Peru elkarrekin pozik bizi izan ziren eta, noski, gazteak baserriko ohitura eta eginbeharrak ezagutzeaz gain, gurasoei laguntzeko, lan asko egiten zuen, asko maite bai- tzituen bi baserritarrok, hau da, bere familia.



Aroa Elortza

Bosgarren taldea
2. saria

IPUINA
Harrabotsak hizpide



HARRABOTSAK HIZPIDE

ZURRUMURRUA

Lasterraldia. Eta pare bat haur-soinu. Eztanda antzeko hots bat jarraian, eta isiltasuna ondotik.

Horrela hasi zen guztia; arratsalde isil bat zen, etxean telebistaren soinua entzun daitekeen horietakoa, baina inor ez dagoena berari so, ezta parean jarrita ere! Aparteko energia xahutzea, besterik ez zen ari egiten une horretan telebista. Gainera, iragarkiak ari ziren ematen, beraz aparteko gauza interesgarriak ere ez litzateke entzungo.

Hala ere, telebista paretik igaro nintzenean ez nintzen iragarkien burrunbaz jabetu, gure sabaiaren gainetik zetozen hotsek harritu baininduten —gainerako soinu eta hots guztiak entzungor egitekoak ziren—. Soinuak, hotsak, zaratak, harrabotsak, asotsak; deitu nahi diozun bezala, baina gure sabaiaren gainean horiek entzuten ziren. Eta orain pentsatuko duzu “zerk du ba horrek arrarotzat? Gaikeko bizilagunak izango dira” —bada hori da arraroa dena, azkeneko pisuan bizi gara—; eraikinari kale batetik begiratzuz gero hirugarren eta azkeneko solairuan, beste kale batetik eraikuntzaren beste aldeari erreparatzuz gero, oster, bosgarren, baina kasu honetan ere azkeneko solairuan. Beraz, nola izan liteke zaratak entzutea gure etxe gainean? Neuk ere ez dakit, baina egi(te)n (ge)nuen.

IPUINA

Egi(te)n bai, gerora ere jarraitu (ge)nuelako entzuten dena delako soinua, baina hori aurrerago kontatuko dizuet, spoiler txiki bat besterik ez da izan.

Egun hartan buruari buelta batzuk eman nizkion zarataren harira, baina seguruenik entzun nuena nire burutazioren bat besterik ez zelakoan izan nengoen; eta horrexegatik ez nuen birritan pentsatu.

Nire egunerokotasunarekin jarraitu nuen egun hartan: gela txukundu, sukaldean zerbait prestatzen lagundu gurasoei eta afalordura arte gelara itzuli nintzen, hamaika koloretako boligrafoak eskuetan hartu eta apunteak azpimarratzera. Gomendio bat, irakurle, edo agian ohartarazpen bat neure buruarentzako: bostehun kolore ezberdin erabiltzeak orri zuria ostadar kolorez janzteko ez du esan nahi emandako materia buruan sartuko zaizunik; are gehiago, denbora gehiegi xahutuko duzu boligrafo bat utzi, tapa jarri eta beste bat eskuan hartu eta tapa kentzen, eta ez duzu horrenbeste igaroko benetan materia ikasten, edo beno, erreparatzen behintzat.

Hori izaten zen normalean egiten nuena nik. Nire punta findun 24 kolore ezberdinetako Stabiloak hartu ohi nituen lehendabizi, jarraian plastikozko erregelari paper zati bat pasatzen nion bezperako azpimarratze saioaren azken tinta hondarrak kentzeko, pastel koloredun 6 azpimarragailu sendoen kaxa irekitzen nuen ondoren eta BIC etxeko boligrafo beltza, urdina eta gorria ateratzen nituen portaminarekin –bolilapitza, gure plastikako irakasleak esango lukeen moduan– batera azkenik. Goizeroko errituala, baita bazkalostetakoa ere.

Behin koloreak mahai gainean prest nituela erregela eta boligrafoekin batera, apunteen parean jartzen nintzen. Egun bakoitzeko irakasgai bat, edo behintzat irakasgai bateko gai pare bat, sarritan gehiegi eskatzen bainion neure buruari, ezinezko helburuak zehazten nituen-eta. Batzuetan nire errituala liburutegian burutzen nuen; beste batzuetan, aldiz, nire logelako ikasmahaian. Egun hartan, ordea, liburutegira joatea erabaki nuen goizean; kuadrillako bakarren bat ere joatekoa zen

bertara, eta taldean ikastea errazagoa denez betiere, presio soziala dela eta, hala gitea erabaki nuen.

Liburutegiak noiz irekiko duen jakitea zaila izaten da, Gabonetako opor-garaian ikasleontzat egun guztiak direlako berdina, baina dirudenez liburutegiko langileontzat ez. Astelehenetik ostiralera ordutegi bat du, larunbatetan, ordea, beste bat, eta igandetan batek jakin! Azterketa garaian, batzuetan, irekita egoten zenaren oroitzapena dut, baina inoiz ez dakit egia den ala ez, joaten naizen bakoitzean ateak itxita aurkitzen baititut.

Zorionez, ostirala zen egun hura, inoiz ahaztuko ez dudana ostiral bat. Hots, liburutegia goizeko 9:00etatik 13:00etara zabalik zegoen gutxienez, baita arratsalde ere. 8:55ean elkartu nintzen liburutegi parean kuadrillako artista handienarekin. Ikastera joateko gelditzen ginen, baina ezer gutxi egiten genuen azkenean. Nire lagunak egun hartan Youtube-ra igotzeko bideo bat editatzen amaitu zuen, eta nik, beno, aipatutakoa, nituen bost irakasgaietatik baterako sortutako 351 orrialdeko koadernoak koloreztatzen igaro nuen goiza. Youtuberra eta artista, horixe ginen, eta ikasleak, aldi berean.

Gure ikasketa saioak kafepintxo bat hartzen amaitu ohi ziren. Egund hartan ere halaxe egin genuen; herriko pintxorik goxoenak egiten dituzten tabernara joan, terrazan eseri neguko haize hotzean txamarako kremailera goraino lotuta eta kafe bero bat hartu genuen patata tortilla pintxo batearekin batera. Berak gazta eta York urdaiazpikoarekin, entsalada barruan nireak; haragijale eta laktosa intolerantea bata, begetariano eta gazta maitale amorratua bestea, horregatik bata besteari bere pintxo barneko gazta eman zion, eta besteak lehenari entsaladako atuna.

Ohituak ginen jada bata bestearekin egotera, batera hazi baikin, eta batera hezi baiktuzten –bata euskaraz, erdaraz bestea–. Baina horrek ez gintuen ezberdin egiten, ezta urrundu ere. Elkar ulertzen ikasi genuen, bakoitza bere ezberdintasunekin eta bere berezitasunekin.

IPUINA

Bazkalordurako etxera itzuli ginen biok. Ordura arte normal zihoan guztia: goizean liburutegian gauza gutxi egin nuen, baina beno, zerbait bai behintzat. Bazkالاurreko pintxoa eta kafea hartu nituen eta bazkaltzeko ez nuen goserik; mahaia prestatu nuen eta etxekoak mahaian jartzeko zain nengoen.

Guztiak mahaira hurbiltzeko zain nengoen, mugikorreko azken jakinarazpenei begira: pare bat mezu erantzuteke WhatsApp-ean, beste bat presaz erantzuteko eta Instagram-eko bizpahiru mezu ireki gabe oraindik. Gauza handirik ez. Horrelakoetan Twitter-en sartu ohi naiz, munduan zer jazo den jabetzeko. Txiolandiako izarrek bidalitako txioak irakurtzen ari nintzen zarataren bat entzun nuenean. Norbait zerbait arrastaka mugitzen ari zela zirudien; jangelan bakarrik nengoenez oraindik, neba ohea egiten ariko zela pentsatu nuen —betiko kontua, 13:57, bazkaria mahaian jada eta mutiko hau oraindik ohea egin gabe!—. Egunerokoa.

Gose larregirik gabe izan bazen ere —patata tortilla pintxoa medio— platerekoa amaitu nuen, kexa artean. Kexak amak arraina prestatu zidalako bigarren platererako, badakienean nahiago dudala ez jatea, begetarianoa naizelako. Hala ere, beti esaten dit bitamina, proteina, eta dena delako bioelementu guztiak lortzeko arraina jango dudala. Eta agian arrazoirik ez zaio faltako, nik adina baitaki elikagaien inguruan, biok biozientzietako arlokoak baikara, baina berak bizitzako esperientzia ere badu, nik oraindik faltan dudan hori.

Bazkalostean Hanabi izeneko mahai jolasean aritu ginen etxeko laurok. Nahi baino gutxiagotan bada ere, jatorduekin amaitzean mahai jolasen batean jokatzeko ohitura dugu, asteburuetan bereziki, norbait haserretzen den arte. Egun hartan, ordea, ez zen inor haserretu eta pare bat partida egin genituen gurasoak siestara joan aurretik, neba bideo-dei bat egitera eta ni berriz nire koloretako mundura itzuli bitartean.

Azterketa garaian, eta bereziki neguko azterketa garaian, ez naiz asko atera ohi lagunekin kalera arratsaldetan. Horregatik egiten zait zirra-

ragarria liburutegira joatea ikastera, lagunak ikusteko aukera bakarre-netarikoa delako. Dena den, sarritan lagunak ere kalea ez zapaltzea erabakitzen dute egun euritsu hotzetan; beraz, kalera joateko aukera izango banu ere, ez nuke izango norekin joan.

Hori izan zen egun hartan gertatu zena. Denbora aldetik nahiko ongi nenbilen ikasketekin; guztia garaiz neraman, aurretiaz planifikatutako egunen buruan. Klean hotz egiten zuen, eguerdiko kafepintxo hartzen ari ginenean ondo jabetu ginen moduan; dena den, bazirudien gehiago hoztu zuela arratsalderako, autoetako kristalak izozten hasiak baitziren eta kazkabarra ziharduen eta. Seguruenik horregatik erabaki zuten egun hartan nire lagunak etxean gelditzea, plan hobea baitzen mantaren azpian pelikula bat goxo-goxo ikustea.

Inork ez zuenez kalera irteteko asmorik, ikasteari ekin nion berriz ere, nire kolore guztiak prestatu ostean. Musika pixka bat, baxu-baxu, kontzentraziorik ez galtzeko, erregela garbitu azkenekoz eta hasi nintzen margotze lanetan berriz ere, goizean lez. Ezinezkoa egiten zitzaidan ordeza kontzentrazioa ehuneko ehunetan mantentzea, noizean behin gustuko abestiren bat tokatzen baitzitzaidan Spotify-ko ikasteko es-presuki prestatuta nuen playlist-ean eta ezin bainion kantatzeari uko egin.

Egun hartan goizean goizetik jabetu nintzen ez zela oso egun eraginkorra izango ikasketei zegokienez. Liburutegian bertan ez nuen gauza askorik egin, nire lagunak bideoa nola editatzen zuen erreparatu baino. Eta arratsaldean ere bazirudien gauza gehiegik galarazten zidatela arreta.

Gustuko abestiak ziren hasieran, mugikorreko jakinarazpenak ondoren eta nebaren garrasiak ostean. Guztiak saihesteko, mugikorra nire gelatik ateratzea erabaki nuen, baina musika entzuteko kaskoak jantzita mantentzea, tapoien gainetik, hartara neba gutxiago entzuteko. Funtzionatu zuen hasiera batean, pare bat orduz buru belarri aritu bainintzen lanean.

IPUINA

Hala ere, pare bat ordura, kaferako deskantsua egin ostean, ez nuen berriz lortu kontzentratzerik. Izaten dira batzuetan halako egunak, kontzentratzea ezinezko zaizunak, izan x arrazoigatik edo y motiborengatik; dena den, egun hartan nire deskontzentrazioaren zioa argia zen: noizean behin entzuten zen soinua.

ASOTS BILAKATU ZENEKOA

Betidanik izan ditut gustuko zurrumurruak, baita zurrumurruka aritzea ere; ez zurrumurruak hedatzen, marmarka aritzea baizik. Pentsa daiteke zurrumurru bezain hitz ponposo bat entzutean, zurrumurru guztiak onak izan behar direla, gauza politak ahapeka esatea izango balitz bezala; eta neurri batean, egia izan daiteke. Izan ere, ur xirripak egiten duen zurrumurruekin pentsatzean, hots arin bat dator-kigu burura, marmar bat, besterik gabe. Hala ere, ahoz aho dabilen zehaztu gabeko horri egiten diogunean erreferentzia, sarri ez dira gauza oso onak izaten; baliteke zerbait goxoa izatea, biharko egunez lantokira nagusiak gozoren batzuk ekarriko dituela, esaterako, edota zerbait garratza, herriko ezagun batzuk haurdun zeudela eta umea galdu dutela.

Zurrumurruak horixe dira beti, zurrumurru; zurrumurruren jabeak soilik jakingo baitu zer den benetan egia, eta zer duen berak asmatu.

Baina zurrumurru bat entzutean, zaratatxo bat entzuten da, marmar bat. Norbait ahapeka hitz egiten. Edota hots arin eta isil bat, etengabea, gelditzen ez dena.

Nik marmarrean aritzea gustuko izan dut beti; ea, nork ez du gustuko noizean behin? Ziur naiz zeuk ere gogoko duzula. Baina marmarra edo zurrumurrua sinonimotzat erabiltzen direneko unean, marmarra gorrotatzen hasten naiz. Azken batean, badira egoera batzuk non zu-

rrumurru edo marmar etengabe bat entzuten den eta isiltasuna soilik behar ez duzun zuk; liburutegian, esaterako.

Jar zaitez lau koaderno, ordenagailu eramangarria, Sony markako kaskoak eta iPad bat dituen gaztearen alboan, eta ikusiko duzu; lagun-nen bat gerturatuz gero, ahaztuko ditu bere musika, apunte eta gailu elektronikoak eta hasiko da bezperako parrandaren inguruan hizketan, ahapeka saiatuz, baina pixkanaka bolumena altxatuz.

Eta zu saiatuko zara kontzentratzen, zurrumurruari entzungor egiten; eta halako batean isilduko da pareko bikotea. Une horretan, ordea, aurtien selektibitatea duten eta horretarako liburutegira ikastera doazen ume moko kuadrilla jarriko zaizu alboan, eta bat-batean gogoratuko dituzu historian ikasitako Canovas del Castillo, Espainiako Konstituzioaren inguruko testu-iruzkina eta industrializazio garaia. Flashback bat, zeure burua ikusi baituzu gauza bera egiten liburutegian: lagun-en alboan eseri, “ikasten” hasi, xuxurlaka egin beharreko testu-iruzkinen gainean parean eseritako ikaskidearekin jarduten hasi eta nola bukatzen zuen liburutegiko langileak zuengana gerturatzen gelatik alde egiteko eskatuz, zarata gehiegi egiten ari zinatela argudiatuta.

Agian horrexegatik erabaki nuen egun hartan liburutegira ez itzultzea —edo besterik gabe, gauza gutxi egin nuelako goizean eta ez nuelako nahi arratsaldean gauza bera errepikatzerik—.

Kafearen osteko ikasketa saioa abiatzear zen etengabeko zurrumurru bat entzun nuenean. Baliteke aurretiaz ere hor egon izana, baina ez nintzen jabetu. Etengabea zen, baina aldakorra; batzuetan ozenagoa, beste batzuetan urrunagoa. Ez zen norbait hizketan, pauso edo oin hotsak baino. Azkarrak hasieran, norbait korrika izango balitz, arineketa, norbaitengandik ihesi, nonbaitera heldu nahian; baina nora? Gazteak baleki, zaharrak baleza.

Arina zen arineketa, bizia, gaztea. Baliteke hori izatea: gazte bat anxtintxika. Baina non? Bazirudien soinua gainetik zetorrela, gure etxea-

IPUINA

ren goiko aldetik; teilatutik, alegia. Pasa zitzaidan burutik aukeraren bat edo beste zarataren jatorria asmatu nahian: bele(t)za(ha)rren bat teilen artean zerbait aurkitu nahian edo arratoiren bat sabaian. Hala ere, nire buruari iruzur egin nahian nenbilela banekien, ongi gainera, onartu nahi ez banuen ere. Azken batean, ongi asko bainekien halako soinua ezin zuela egin gehienez kilo erdi pisa dezakeen arratoi batek; ezta Deba ibaiaren bazterretan pozik hazitako bizpahiru kiloko arratoi aleak ere! Eta beno, izan zitekeen beleren bat teilatuan pausatu iza-na, edota zozoren bat, baina halako asotsa egiteko gutxienez ostruka, kondor ala arrano beltza beharko luke izan; eta ez dut uste horrelako asko dugunik oraindik nire herrian hegaka.

Zer zen, orduan, entzuten zen neurrigabeko zurrumurru hori? Ez nuen erantzunik aurkitu, baina zaratak jarraitzen zuen.

Badirudi, gainera, neu nintzela entzuten nuen bakarra, etxeko gaine-rako guztiek ez baitzuten ezer aipatu zarataren inguruan egun osoan zehar. Ez ez zutela entzun bakarrik, baizik eta zorotzat jo ninduten! Ez omen zen posible gure etxearen gainetik soinuak etortzerik, eta are gutxiago arineketak, azken pisuan bizi garelako (jada badakizun bezala, irakurle). Hala ere, argi nuen nik soinuak gainetik zetoze-la eta ez azpiko solairutik. Dena dela, azpitik entzungo nituela sinistarazi zidaten; eta nik kasu egin nien.

Hurrengo egunera arte bakarrik sinistu banuen ere gezur hura.

BERRIZ ERE. ETA ORAIN, ZER?

Lehen egun hartatik aurrera, nire belarriak soinurik txikienak entzute-ko trebatzen hasi ziren. Kanean inoiz baino gehiagotan entzuten nuen nire izena —eta hori nire izena ez dela horren ohikoa, beraz pentsa Ainhoa edo Xabi(er) izango banintz!—, sarriegi entzuten diren anbu-

lantziaren sirena hotsek gehiegi eragozten zidaten ala haurren negar azantzak eta arrantzak.

Egunero sumatzen nituen ordura arte inoiz entzuteke nituen hotsik ñimiñoenak. Entzun agian aurrez ere egingo nituen, baina besterik gabe paso egiten nuen, zarata horiek ez zutelako eraginik nire egunerokotasunean. Baina egun hartatik aurrera, soinu eta hots guztiak entzuteko nire begirada, edo beno, agian hobe esanda, entzumena, zeharo aldatu zen. Aurretiaz, esaterako, kanpandorrearen azpian ez banengoen, kanpai hotsekin ez nintzen oroitu ere egiten; orain, ordea, herriko edozein izkinatan egonda ere, orduero entzuten ditut. Etxeko igogailuaren engranaje eta makinarien zaratak ere entzuten ditut norbaitek botoiari jotzen dion aldiro; eta egia esan nahiago izango nuke entzungo ez banitu, aurrez egiten nuen lez, orain nire bizilagun alferrekin gehiegi oharkabetzen bainaiz nire eginbeharrekoetatik igogailua noiz geldituko zain.

Igogailu-soinuak ez dira gure eraikinean entzuten diren bakarrak. Beste egun batez bezperakoaren antzeko soinuak entzun bainituen. Eta oraingoan ez nintzen ni soilik izan gure gainean norbait korrika ari zenaren susmoa zuena, baita nire etxeakoak ere.

Bazkalordua zen bigarren egun hartan. Mahaia jasotzen hasiak ginen jada, azkenburukoa oraindik mahaian bazegoen ere. Nire etxean badugu ohitura bat, asteburuetan betetzen duguna soilik: kafearekin batera jateko gozoren bat atera mahaira edari alkoholduen batekin batera, mahai jolasetan aritzeko.

Hanabi mahai jolasean ari ginen berriz ere, bezperan lez. Taldean pentsatu behar den jolas konplexu horietako bat da Hanabi. Nire kontzentratzeko gaitasuna, ordea, pixkanaka gutxituz zihoan jolasa zailago bihurtzen ari zen bitartean; nire zentzumen guztiak beste gauza bati adi zeuden, eta ez jolasari: soinua, zarata, asotsa, zurrumurrua, marmarra.

Halako batean nire nebak ere entzun zuela jabetu nintzen. Ez zuen

IPUINA

ezer esan, baina aurpegi arraroarekin begiratu zuen sabaira; baina, nork begiratzen du sabaira arrazoiren batengatik ez bada?

Jolasarekin jarraitu genuen arren, argi zegoen nire neba ere ardura-tzen hasia zela eta jada ez zegoela jolasean, gure sabaian zer gerta-tzen ari zen asmatu nahian baino. Biok geunden gure pentsamen-duetan murgilduta, nik ongi bainekien hamaika galdera ari zitzaizkio-la igarotzen burutik une horretan, nik bezperan izan nituen berberak. Gurasoek nabaritu zuten zer bait gertatzen zela, bakoitza norbere munduan pulunpatuta geundelako.

Orduan nire gurasoek ere entzun zuten: lasterraldia eta oihu isil bat atzetik. Isiltasuna azkenik.

BIZILAGUNEI BISITA

Bazkaloste hartan guztiok entzun bagenuen ere, ezer ez egitea era-baki genuen, edo agian ez genuen ezer egin zer egin ez genekielako. Udaltzainei deitu behar al zaie halakoetan? Eta zer esan? “Kaixo, arazo bat dela eta deitzen dut. Bada, begira, azkeneko solairuan bizi naiz baina nire sabaiaren gainetik zaratak datozela iruditzen zait”. Barre algara bat besterik ez (ge)nuen espero telefonoaren beste al-detik, ron gehiegi edan duen norbait izango zela deitu duena pen-tsatuko lukeelako udaltzainak, edo ahotsak entzuten dituen norbait.

Egun arraroak izan ziren ordutik aurrerakoak, guztiok hasi baikin-en nonahi zaratak entzuten, eta jada ez baikenekien bereizten nondik zetozen.

Gure hipotesi bakarra zen azpiko bizilagun berriak zirela zarataren jatorria, eta orain arte azpiko bizilaguna etxean bizi ez zenez, ez geundela ohituta zaratarik entzutera –besterik gabe, horren erraza

eta horren sinplea—. Baina zaratak ez zetozeala beheko solairutik, sabaik baino, nahiko argi genuen.

Burutik pasa zitzaigun uneraren batean gure alboko bizilagunei galdetzea. Azken batean, solairu berean bizi gara eta hots horiek guk entzunez gero, beraiek ere entzungo lituzkete, seguruenik. Hala ere, ez genekien oso ongi nola hurbildu beraien etxera eta aipatu zarata arraro batzuk entzuten genituela, eta ez genekiela haien jatorria eta ea beraiek ere entzuten zituzten.

Badaezpada ez galdetzea erabaki genuen, zorotzat joko gintuztenaren beldur.

Dena den, beste irtenbide bat otu zitzaigun: bizilagunak bisitatzea —bizilagun berriak— gure gaineko ez solairuan bizi zirenak, gure sabaia-
ren eta teilatuaren artean.

Horretarako prestatu ginen neba eta biok arratsalde hotz batean. Mamu ehiztariak baikinak, bakoitzak zerbait hartu genuen, badaezpada; nebak xurgagailua hartu zuen eta nik mailuka, biok eskiatzeko betaurrekoak, txapela eta eskularruak jantzi genituen eta musukoa, ez genezan koronabirusik edo bestelako mikroorganismoak harrapatu han goian.

Argazkia atera, gure memelokeria guztiak etxean utzi eta abenturara abiatu ginen —xurgagailu, mailu, eta eskiatzeko jantzirik gabe, noski—. Kilometroak egin genituen gure sabaiaren eta teilatuaren artean dagoen hutsunean sartu ahal izateko dagoen atara iristeko. Izan ere, gure ataria mozkortuta edo beste drogaren baten eraginpean zegoen arkitektoaren batek diseinatu zuen. Gure atarian 4 atari daude konektatuta; bakoitzak bere sarrera du, bakoitzak bere atea eta bere postontzia, baina guztiek dute giltza bera —atariek, ez postontziek—. Hori dela eta, atariko korridoreak kilometrikoak dira, ortzi-mugara begiratu eta amaierarik ikusten ez denean gertatzen den bezalaxe.

Baina azkenean iritsi ginen ate madarikatu horretara, gutxienez gure

IPUINA

atariko eskaileratan gora eta behera ibili ostean, hamaika minutuz.

Eta agian orain pentsatuko duzu “Zein ate? Zergatik dago ate bat azken solairuaren sabaiaren eta teilatuaren artean?” Ongi pentsatua, irakurle! Neronek ere gauza bera pentsatu bainuen urte batzuk lehenago.

Azken solairuan bizi bagara ere, eta amak beti esan izan didan arren beroa gorantz joaten dela, gure eraikinean ez dirudi hala gertatzen denik! Neguan gure egongelan izozkiak ez dira urtzen —eta bai, gure etxean neguan ere izozkiak jaten dira—, estalakitak sor daitezke itoginen bat egonez gero, edo Ötzi, izotzezko gizona, bera ere berpiztuko litzateke hotzarengatik. Horregatik, isolatzailea sartzea erabaki genuen pare bat urte dela.

Isolatzaileetan adituak ez diren ez-jakinentzat: isolatzailea tenperatura mantentzen duen zerbait da, baina tenperatura mantendu ahal izateko, bokata bat egin behar da tenperatura mantendu nahi den tokia-
ren inguruan; hau da, sabaiaren gainean, lurraren azpian, eta ertzeko pareten ostean isolatzailea sartu behar da. Baina imajina dezakezun moduan, ez da horren erraza! Gure etxea ez baita Lego-ren piezekin egina eta ez baita horren erraz muntatu eta desmuntatzen.

Hori dela eta, aditu batzuk etorri zitzaizkigun alboetan eta lurpean isolatzailea sartzera. Goian, ordea, guk egitea erabaki genuen, eta horregatik gure sabaiaren eta teilatuaren arteko zuloa ezagutu genuen. Bertara iristeko, auzoteriako buruak emandako giltza soilik ez genuen behar izan, atea ireki eta gure etxea non zegoen asmatzea. Azken batean, hutsik dagoen hautsez betetako zabalgunean ezin da jakin zehazki non amaitzen den etxe bat eta non hasi hurrengoa; baina nola edo hala moldatu ginen gure etxea bero mantenaraziko zuen isolatzailea kokatzeko gure etxearen azaleraren inguruan.

Horregatik dugu giltza oraindik, berez duela pare bat urte itzuli izan behar bagenu ere —ahaztu egin zitzaigun eta soinuen kontu honekin jabetu ginen—. Beraz, giltza oraindik bagenuela aprobetxatuz, han

joan ginen neba eta biok atea irekitzera, zein baino zein beldurtuago.

MALETA GARBI KOLORETSUA

Ireki genuen atea eta espero ez genuen zerbait ikusi genuen. Iluna zen pasabidea, nik espero baino luzeagoa, nebak gogoratzen zuena baino argiagoa itxura denez. Isolatzailea sartu genuen garaian nik ez nuen aukerarik izan hutsune hura bisitatzeko, bai, ordea, nebak. Horregatik, asko harritu zen argia ikustean pasabidearen hasieran, ez baitzuen halakorik gogoratzen. Hori al zen, agian, bizilagun berriak genituenaren lehen seinalea?

Argia atea irekita genuelako sartzen zen, baina atearen albotik bertatik ere argi bat zetorren. Orduan jabetu ginen argi hori ez zela soilik kanpoko eguzkiarena, atearen gainean zegoen bonbilla batetik zetorrela baizik, hau da, pasabidearen barneko aldetik jada, atearen markotik.

Argiarekin itsututa geundenez, ez ginen jabetu oraindik gauza harri-garriago batez: koloretako maletaz.

Pasabidearen ertz batean, plastiko zati handi baten gainean, hautsik gabeko maleta koloretzu bat zegoen kokatuta. Koloretako loreak ziztuen, umetan marrazten diren lore horiek, erdian borobil handi bat eta inguruan kolore ezberdinetako petaloak dituztenak.

Maletak berak ez gintuen harri eta zur utzi, polita ez bazen ere; zurtu gintuena bere garbitasuna izan zen, eta beno, maleta han egoteak, berez pasabide edo hutsune hura auzoteriarena baita baina inork ez du bertarako giltzarik, auzoteriako buruak baino —eta guk, akats baten ondorio—.

IPUINA

Beldurrak airean geunden egia esateko, ez baikenuen sarreran ezer aurkitzerik espero. Hala ere, esan beharra dago neba eta biok betidanik izan garela aski beldurtiak, eta pare bat gauza susmagarri nahikoa ditugula izuak jota egoteko.

Hori dela eta, ahalik eta isilen atea itxi eta alde egitea erabaki genuen, eta errefortzuekin itzultzea. Horretarako egun batzuk behar izan genituen baina, plan estrategiko bat antolatu beharra izan baikenuen aurretiaz, badaezpada, ez baikenekien zerekin topatuko ginen pasabidearen amaieran.

Aurkitu genuena ez zen espero genuen ezer, ezta burutik pasa zitzaienik ere.

ITZULERA

Ez genekien zer ikusiko genuen pasabidearen amaieran, baina bagegenekien zerbait bazela jada bertan; edo beno, norbait bazela bertan, maleta bat baitzegoen behintzat han, eta ziur geunden ez zela gure bizilagunena maleta hura, pasabide hura ez baitzen ganbara, ezta inoren sotoa ere. Bizilagun berria(k) gen(it)uen beraz.

Denetik eraman genuen gurekin pasabidera: esku-argi handi eta txikiak, zartagin eta mailuak (zarata ateratzeko geuk ere, beharrik izanez gero), walkie-talkie pare bat pasabideko atean gelditutako jendearekin komunikatzeko eta beste pare bat etxean zeudenekin hitz egiteko, topera kargatutako sakelakoa eta baita badaezpada haririk gabeko etxeko telefono bat.

Hori gutxi ez balitz, nirekin liburutegian ikasten duen laguna ere neurekin eraman nuen, Youtube-ra bideoak igotzen dituen hori, patata tortilla pintxoari gazta kentzen diona eta trukean nire entsaladaz bete-

tako tortillaren atuna jaten duen lagun hori. Bizi guztiko gertuko lagun hori. Batek jakin zer aurkituko genuen bertan! Lehen orduko berriren bat edozein momentutan sor daitekeenez, kazetari bat ezinbestean izan behar da zure eraman beharrekoen zerrendan.

Gainera, txikia da garaieraz gure kazetaria, horregatik erraz sartzen da pasabidean, ni ez bezala; baina handia da bihotzez, horregatik dago beti prest edonori laguntzeko, irribarre baten trukean.

Sartu ginen pasabidean, neba, kazetaria, kuadrillako beste lagun bat eta laurok. Abentura hori bai ala bai laurok batera bizi behar genuen zerbait zela sentitu genuen guztiok lagunei gure gaineko bizilagun susmoaren berri eman nienean. Azken batean, makina bat aldiz ari-tuak ginen gure etxean ezkutaketan jolasean, armairuetan sartuz bat-zuk eta besteak lagunak bilatuz, bitartean jostailuzko armak genituela elkar babesteko. Eta zer zen, ba, azken batean egitera gindoazena umetan egiten genuena baino? Gauza berbera zen: nonbaitetik zeto-rrren hotsa jarraitu, bertan zer zegoen begiratu eta gero... Gero korrika ihes egin, armairuan edota ohepean ezkutatuta zegoenak bere jostai-luzko armarekin bere burua defendatzen hasi aurretik.

Baina, zer egin beharko genuke halakorik gertatuko balitzaigu? Ez genuen B planik, ezta A, ezta Zrik ere. Dena grabatuta geldituko litza-teke gure kazetariaren eskuetan, hori bai, baina bizirik irtengo bagina handik.

Eta egin genuen, erreportaje ederrarekin gainera. Inoiz argitaratu ez zen erreportajearekin.

Sartu ginen esku-argiekin inguru guztia argituz. Uste genuena baino luzeagoa eta baxuagoa zen pasabidea; horregatik guztiok, gure kaze-taria izan ezik, makurtuta joan behar izan ginen –batzuetan garaia ez izateak ere izaten ditu abantailak!–. Umetan betaurrekoak zituen laguna zihoan lehenbizi, orain jada ez du betaurrekorik, ukipen-leia-rrak erabiltzen baititu trukean; hala ere, umetan adinako adoretzu eta bipila jarraitzen du izaten. Eta ausartuko nintzateke esatera umetan

IPUINA

zena baino kementsuagoa dela orain, bizitzako esperientzia guztien ondorio. Jarraian nire neba zihoan, handiena altueran baina txikiena adinean. Beti izan dute nire kuadrillakoek bera oso gustuko, eta baita berak haiek ere; horregatik beso zabalik hartu dugu gure artean beti, hartara barre algara batzuk ziurtatuta izaten baititugu gainera. Ondoren ni, multzoaren erdialdean, ez azkena, ezta lehena ere, halakoxea izatea gustatu izan baitzait beti: nire ekintzek eragina izatea baina ez gailentzea jendartearen. Eta azkenik kazetaria, bere gorputz txikitik ahots handi bat ateratzen, kameran dena ongi grabatua gelditzeko, gure esperientziak gure burmuinen memorian ez ezik, mugikorraren memorian ere gordetzeko.

Hasieran pentsatu genuen Instagram-en edo Youtube-n zuzeneko bat egitea ideia ona izan zitekeela, hartara gure ingurukoek dena nola zihoan jakin zezaten eta, aldi berean, dena ongi dokumentatuta geldi zedin. Hala ere, Youtube-n streaming-a egiten arituak ginen hilabete batzuk lehenago –koronabirusaren garaiko jaietan herria alaitzeko– eta uste baino nekezagoa zela jabetu ginen. Hori dela eta, zuzenekoak alde batera utzi eta grabatzea soilik erabaki genuen, mugikor bakarrean gordeta gelditzeko guztia, badaezpada, ez baikenekien zerekin edo norekin egingo genuen topo.

Iritsi ginen, azkenean, luzeegiak ziruditen metroak makurtuta egin ostean gure etxearen ingurura, gutxi gorabehera. Eta topatu genuen gure zarataren jatorria halako batean. Han zen, albo batera eta bestera korrika, oihu artean. Gure esku-argien argia ikusi zuenean, ordea, bat-batean isildu zen; oihu horiek inoiz bere barnetik atera izan ez balira bezala, bat-batean mutu bihurtu izan balitz bezala.

Hiruzpalau urteko umea zen korrika zebilena, baina lurrean eserita koloretako margoak eskuan zertxobait koxkortxoagoa zen gaztetxo bat zegoen. Bihotza gelditu zitzaidan une hartan. Adinarengatik nirekin uztailean udalekuetan egon zitekeen gaztetxo hura; eta haur txikia... haur txikia horixe zen, haur bat, zeharo galduta zirudien haur bat.

Gure kazetariak ere hitz egiteari utzi zion, aurrez ahapeka hizketan ari

bazen ere bideoan. Aho bete hortz gelditu ginen guztiok.

Zer zen hura baina? Ingurura begira gelditu ginen. Ohe bat zirudien zerbait zegoen ertz batean, kanpinean erabili ohi den gas horietako bat eta pare bat zartagin eta lapiko apalategi antzeko batean. Pixontzi hori bat ere bazen, eta baita fardel poltsa bat.

Umeengana gerturatu ginen, haiek gu bezain izutuak baitzeuden. Euskaraz hasi gintzaizkien hizketan, baina bazirudien ez zutela askorik ulertzen; gainera, haur zaharrenak gazteenari zerbait esan zion ulertu ez genuen hizkuntzaren batean, eta elkarren ondoan eseri ziren, ohe antzeko hartan.

Halako batean, soinu bat entzun genuen; minutu batzuk lehenago gu ia katuka aritu ginen pasabidetik zetorren. Ahots bat zirudien, emakume baten ahotsa.

Eta hala zen. Emakume gazte baten ile luzea ikusi genuen lehenbizi; makurtuta, burua soilik ikusi baikenezakeen lehenbizi. Haurrek orduan garrasi egin zuten, eta korrika gerturatu ziren emakumearengana. Ordura arte estatuak bailiran egon ziren eserita ohean, ama zirudien emakumearen zain egon balira lez, ezagun hura iristear zela sentitu izan bailute gisan.

Gure kazetariak, kazetari profesionala izanik –guztiz profesionala ere ez bada oraindik, ez delako kazetaritzatik bizi–, ez zion segundo batez ere grabatzeari utzi eta guztion mugimendu txikiak ere gordeta gelditu ziren. Baita gure elkarriketa ere emakume harekin.

Galdetu genion nor zen eta ea zer egiten zuen gure etxeko sabaiaren eta teilatuaren artean. Izua begietan islatzen zitzaion, eta bihotzak eztanda egingo ziola edozein unetan aski ziur nuen; baina ez zen halakorik gertatu, zorionez. Gurekin janaria eta ura ere eraman genituen ez badaezpada, hizketan hasi aurretik ur trago bat eskaini genion eta gustura hartu zuen. Eta ur hark emandako indarrarekin hasi zitzaigun mintzatzen.

Aipatu zigun lehen gauza euskaraz hitz egiteko ez zela oso gai izan zen, baina saiatuko zela, horretarako ari zela ikasten Euskaltegian. Nire bihotza urtu egin zen une horretan; bere ahotik lehen hitzak irten ziren unean jabetu ginen guztiok euskara edota gaztelania ez zirela bere ama hizkuntza, bere ahoskera bereziagatik. Afrikatik zetorrela azaldu zigun, Saharako desertutik zehazki. Eta urteak zeramatzala euskaraz hitz egiten.

Zur eta lur gelditu ginen kontatu zigun guztiarekin. Sahararra omen zen, eta 18 urte bete arte, udaro etortzen zen Oporrak Bakean programarekin Euskal Herrira, desertuko bero jasanezinetik ihesi, uda oparoago baten bila. Hemezortzi urte bete zituenean, ordea, ezingo zela gehiago itzuli bere bigarren etxera, Euskal Herrira, jakin zuen, adinez nagusia izateagatik; horregatik bere lehen etxera ez itzultzea erabaki zuen, Saharako hondarra Debako hondartzakoarengatik ordezkatzeari, erabaki garratz eta zaila izan bazen ere.

Ordutik zazpi urte igaro direla esan zigun. Kalkuluak egin eta ohartu nintzen 25 urte besterik ez zituela orduan, hau da, gu baino bizpahiru urte gehiago ez. Uf. Malkoei ezin eutsi jarraitu nuen bere istorioa eta historia entzuten.

Badirudienez, berarekin dauden haurrak bere neba eta ahizpa dira. Hauek, ordea, ez ziren duela zazpi urte gelditu Euskal Herrian, batez ere bietako bakar bat ere ez zegoelako sortua oraindik ere. Bi urte direla erabaki zuten Euskal Herrian gelditzea Oporrak Bakean programarekin uda igarotzeko hona etorri ostean. Nahiz eta familiaratekoak izan, Idder-ek, gure lagun berri gazteak, Euskal Herrian bizitzen gelditzea erabaki zuen, berez halakorik egin ezin zuenean; horregatik, neba-arrebak ikusi ahal izateko aukera gutxi zituen, hauek ere hona etortzen ziren arren uda errazago bat igarotzera.

Aurten bi uda, ordea, diru pixka bat aurretzen hasia zenez eta pisu txiki bat izanik alokairuan, neba-arrebak urte batzuez berarekin gelditzea adostu zuen familiarekin, beste neba-arreba asko zituztelako l-

dder-en gurasoek zaintzeko oraindik Saharan, eta hartara beraientzat ere errazagoa izango zelako. Izan ere, ldder-ek Euskal Herrian gertzea erabaki bazuen ere azkenekoz programarekin hona etortzean, ez zen bat-batean erabakitako zerbait izan. Azken egunean hegaldia ez hartzea aurretiaz zuen pentsatua, uztail horretan hona etorri aurretik, eta bere Saharako gurasoek hitz eginda zuten jada Euskal Herriko gurasoekin dena zehazteko; azken batean, denen artean erabakitako zerbait izan zen.

Hasiera batean hemengo familiak harreran edo adopzioan hartzea zen asmoa, baina jada hemezortzi urteak beteak zituenez ldder-ek, arazoak soilik ez ziren azaltzen alde guztietatik. Horregatik, urte batzuez dokumentazio egokirik gabe bizi izan zen, baina azkenean lortu zuen Euskal Herrian bizitzeko baimen antzeko zerbait. Ez zuen, hala ere, oraindik ezer ofizialik, halako prozesuek luze jotzen baitute.

Horregatik bizi omen dira azken boladan gure etxearen gainean. Arazoak izaten hasiak ziren legedi aldetik administrazioarekin, legearen arabera bere neba-arrebak bahitu baitzituen bi urte badirela ldder-ek, nahiz eta berez bere gurasoek eskatu haurrak hartzeko Oporrak Bakean programako azken aurreko egunean, Saharara itzultzeko hegaldia hartu ez zezaten.

Han eta hemen bizi izan omen dira ordutik. Etxe batean aurkitu dituztenean, beste etxe bat okupatu dute, edo beste lagun baten etxean bizi izan dira. Azken aukera izan da honakoa, bere Euskal Herriko familiaren eraikinean bizitzea. Hasieran etxean bertan bizi ziren, baina Ertzaintzak zein Guardia Zibilak sarri joaten ziren etxera bisitan ldder eta bi haurrak han ziren galdez; zorionez, ez zituzten inoiz aurkitu. Hala ere, arriskua ikusita, eraikineko azken solairuaren eta teilatuaren arteko hutsunean bizitzea izan zitzaien azken aukera, ganbara bera miatu baitzuten noizbait poliziek. Auzoteriako buruak izanik bere familia, giltza eskura zuten, eta beste inork ezingo lukeenez lortu giltza hori auzoteriako buruari eskatu gabe, ez zegoen arazorik beraientzat. Bazen arazo bat, ordea. Gure familiak oraindik bazuen giltza, isolatzailea sartu genuen garai hartatik. Gu ginen arazo beraientzat orain.

IPUINA

Horregatik, inori ezer ez esatea erabaki genuen. Gurasoei aipatu genien zerbait, azken batean guztiaren berri baitzuten beraiek ere eta guk adina entzuten baitzituzten zaratak; baina sekretua mantentzeko hitza eman zuten.

Gure kazetariaren lana ere pikutara bidali behar izan genuen, ezin izan baikenuen bideoa gorde. Ezin izan baino, nahiago izan genuen ez gordetzea eta bizipen hura oroitzapen gogoangarri bat bihurtzea besterik ez.

Egun hartatik aurrera, Idder-ekin kafe bat eta patata tortilla pintxo hartzeko gelditzen gara hilean behin. Orain ere kazetariak nire pintxoko atuna jaten du eta nik bere gazta, jada betaurrekorik ez duen lagunak haragi begetalarekin egindako hanburgesa txikia, nire nebak nire pintxo bera baina atuna ere jaten dio eta Idder-ek patata tortilla hutsa, hori omen da eta Euskal Herriko jakirik onena.

SOINU GEHIAGO

Beste soinu bat nire gelan. Baina zer demontre? Zein zarata da oraingoan?

Iratzargailuaren soinu nazkantea besterik ez da izan, goizero ernarazten nauen pipipi gogaikarria, besterik gabe. Baina orduan, benetakoak izan al dira orain arte entzun ditudan lasterraldiak gure sabaiaren gainean? Ala ametsa izan ote dira soinuak, zurrumurruak, asotsak, Sahara eta Idder?

A detailed illustration of a spider on its web. The spider has a green and yellow patterned cephalothorax and abdomen, with black and orange markings on its legs. It is positioned on a web made of thin, white, branching lines against a light brown background.

Lierni Elortza

Bosgarren taldea
1. saria

POESIA
Amaren mila aurpegi

Amaren Mila Aurpegi

Ama,
Ma ttiki batekin hasi nahi nuke,
Alimalekoa ere
Merezi duzun arren.
Alaben ama,
Mutikoen ama ere izan zinen,
Amama ere bai.
Miresmenez zaitugu denok bihotzean,
Arima gurekin geratu baitzen
Mundu hau utzi zenuenean,
Agur gozoaren ondoren.

POESIA

Ama hizkuntzaren

Mamia eta

Azala

Askazi

Muineraino

Atxikia

Abila

Mihia

Arin-arin dantzatzen

Ahotik

Magaleraino iritsi zaizkigun

Argudioak isuriz

Arrasto sarkorra

Moldizkiratzeko

Ahalduna zu

Ama

Milaka eta bakarra.

Aipatzearen poderioz ere,

Murmurika nahiz ozen,

Agortzen ez den elea

Milioika aldiz errepikatua,

Adeitsua,

Melodia eztiz

Ahoskatua,

Mamitsua,

Abegikorra.

Ama!
Mediku
Artatzaile

Arotz,
Mekanikari,
Arrantzale

Antzezle,
Margolari,
Abeslari

Arrotz zaizuna ikasiz
Mutu edo hiltun
Adoretsu beti

Aldapan gora
Makina bat aldiz
Arrakastaraino!

Arrakalak ekiditen iaioa
Malgu halabeharrez
Agertzen jakitun,
Merezi badu
Amen esanez.
Manuei aurre egiteko eta
Amore eman gabe tinko.
Mamutxak eta hautsak
Amaraunaren
Mihisean
Apartatzen aparta.

POESIA

Arbasoen
Marka eta
Arnasa

Aldaketen
Mugimenduei
Adi

Arrazoiaren zentzuan
Mamitsu eta
Alai

Aitzindari,
Mentura alde emateraino
Argi

Amaren Mila Aurpegi
Marraztu nahi izan ditut
Aitortza laburra eta bihotzekoa jalgiz.
Musika nota aproposa baitzina
Aire gozoa nonahitik darizun
Mama agortezina.
Amaiezina da sortzen duzun inspirazio emaria
Maistra, maratz beti, mundu erakusle
Agertzeari ez diozula utziko badakigunez
Maitasunez
Agur, ama.

Ausart
Moldakor
Aurrerakoi



Aroa Elortza

Bosgarren taldea
2. saria

POESIA

**Zenbatutako egunak
eta egun zenbatuak**

ZENBATUTAKO EGUNAK ETA EGUN ZENBATUAK

Martxoak 26, larunbata

06.27 a.m.

Argitu du egunak jada,
Eta eguzkia dirdiraka hasi da
Goizaldeko lehen uneetatik.
Ostiralean garagardo pare bat hartzera joan
Eta konturatu gabe gaua luze joan zitzaienek
Ikusi dute eguna argitzen,
Eguzkia bera baino lehenago etxetik irten diren
Korrikalari amorratuekin batera.
Batzuk etxera bidean dira,
Besteek etxea utzi dute jada.

Eguna da hemen, munduko beste tokiren batean,
Une honetan bertan,
Eguzkia ezkutatzen ari den bitartean.

Batzuk etxeratu dira,
Beste batzuek kalea hartu duten bitartean.
Kalea hartu duten horiek
Goizaldeko txori kantarien txorrotxioak aditu dituzte,
Jaramon handirik egin gabe
Edo entzutea eman ez
Bost zentzumenak txori-kantuei so.
Ametza hartu nahian dabiltzanek, aldiz,
Beraien barne pentsamenduak entzun gura dituzte,
Parrandan gertatutakoak berriz bizitzeko
Ala alkoholak lausotutako ekintza horiek gogoratzeko asmoz,
Benetan gertatu diren edo esna bizitako ametsak izan diren bereizteko.

POESIA

Eguerdia da hemen, munduko beste tokiren batean,
Une honetan bertan,
Gauerdiko 12 kanpaiak joka ari diren bitartean.

Batzuk bazkalordurako bazkaria garaiz izateko itzuli dira etxera,
Beste batzuk, aldiz, gosaltzeko esnatu dira bazkalorduan.
Larunbateko merkatuan egon direnek
Erosiak dituzte jada bazkalorduko barbakoarako
Beharrezko barazki eta ogi egin berria,
Nahiz eta ama orearekin eginiko ogia
Eta herritik pare bat kilometrotara dagoen baserriko baratzetik batutako zainzuriak
Bizpahiru aldiz garestiagoak izan supermerkatuan aurki daitezkeenak baino.
Ostiraletako parrandak berreskuratu nahian aritu zirenek
Patriketan sos gutxiago izango dituzte gaur arratsaldeko poteorako,
Kafearen prezioak ez ezik, kubatenak edota konbinatuenak ere gora egin baitu,
Horiek ere ia kilometro zero direla pentsatzeraino.

Merienda nahiz kafe ordua da hemen, munduko beste tokiren batean,
Une honetan bertan,
Tabernariak azken arima herratuak kaleratu nahian dabiltzan bitartean.

Batzuk kaferako atera dira berriz ere kalera goizeko erosketak egin ostean,
Beste batzuek siestarik egin barik bizirauten diraute, ostera.
Mundua konpontzeko saiakera egin arren ere,
Kafe bakarrak ez duenez luzerako ematen
Garagardora salto egitea erabaki dute bezperan mozkortu ez zirenek,
Burutik pasatzen den guztia mingainera ekarri nahian,
Edo agian bat-batean pasatako pentsamendu aldrebesak esatea saihesteko
Alkoholaren eraginez, ala alkoholari esker.
Dutxa indar berritzaile bat hartu dute askok,
Baina ez da aski izan bezperako edarien ondoriozko bestondoa gutxitzeko,
Alkohola odoletik ateratzen laguntzeko.

Paperak aldatu dituzte gaur kalean direnek atzo zirenekin.

Afaria mahaian da jada, munduko beste tokiren batean,
 Une honetan bertan,
 Etxeko lotienak iratzargailuak 10 minutuz atzeratzen dabilta,
 Goiztiarrago batzuk azken kafe tanta disfrutatzen dabilta, ordea.

Afalordua ezer zehaztua ez bada ere, antzekoa izan ohi da etxe orotan,
 Baina esnatzeko orduaren inguruan,
 Ba al da zerbait adierazirik idatzi gabeko arauetan?
 Afalordua bera ere
 Idatzi gabeko arauetan idatzita dagoenik ez nuke hain ziur esango,
 Ez baita gauza bera iparraldean edo hegoaldean bizitzea.
 Nik iparra aspaldi galdu nuen, ordea,
 Eta agian horregatik afaltzen nuen beranduago,
 Hegoaldean sentitzen nuelako nire burua
 Beharbada.
 Orain, aldiz, iparra berreskuratu dudala dirudien honetan
 Afalordua merienda orduan egiten dut ia.
 Eta ez dakit zer den hobe,
 Nire gorputzak iparra berreskuratu izana
 —edo iparralderago etorri izana, behintzat—
 Edo nire goseak hegoa ezagutzea.

Apirilak 1, ostirala

Apirila edo jorraila,
 Soroak kolorez loratzen diren garaia
 Geroz eta gertuago udako eguzki epel lasaia.
 Baina gaurkoan ez du loreen kolore bereziak argitu
 Herri lau honetako eguna;
 Gaurkoan, osteria,
 Elur malutek zuritu dituzte lore soroak
 Eta berotu ohe zokoak.

POESIA

Elurra edo harria egin,
Hemen ez da bizikletatik jaisten.
Pentsa zenezake Caja Laboral
Edo Euskaltel Euskadiko txirrindularia naizela.
Baina ez.
Herbehereetan bizi den euskalduna nauzu,
Baina agian Euskal Herrira itzultzean
Txirrindularitzan hasiko naiz
Pedalei hainbeste eragin eta gero.

Dena den,
Hori ez da kontua.
Gaur elurra egin du,
Hori da oraingo asuntua.

Baina badirudi elurra
Zera besterik ez dela,
Zerutik jausten den zerbait,
Garrantzia handirik gabeko zer edo zer.
Edo hala dirudi behintzat, hemen.

Lehen elur malutak
Beti
Bizi izan ditut zirrargarritzat.
Elur-ura euri-elur bilakatzen den unea
Eta azkenean lurra zuritzen hasten deneko hori.
Belarraren orlegia elurraren zuriarekin ordezkatzan deneko momentu hori.
Gaur eta hemen, ordea,
Badirudi une hori ez dela gertatu,
Edo umeez behintzat ez dute nabaritu.

Ikus dezakezu haur kuadrilla bat,
Besterik gabe,
Irakasleekin elur mantu baten ondotik oinez
Eta inor ez da gelditzen,
Inork ez du zuriaren bikaintasun hori apurtzen.

Guztiez daramatzate katiuskak,
Elurretarako berokia
Eta baita eskularruak ere

Baina inor ez da mutiritzen
Taldea albo batera utzi
Eta pauso batzuk zuritutako belardiaren gainean
Bakarrik
Ematera.

Beharbada hori da falta dena,
Ausardia.
Edo lehenengo bat.
Ziur bainaiz norbaitek eginez gero,
Guztiak joango liratekeela.
Eta hurrei begira jabetu naiz
Neu ere
Sarri
Haur horietako bat naizela,
Artaldea jarraitzen duen ardi hori,
Besteengandik bereizteko ezer berezirik ez duen
Ardi xalo hori.

Izan ere, noizean behin artaldeko ardi beltza izatea
Ez dator gaizki
Baina begirada guztiak zuri so egotea ere
Ez da horren laket.

Apirilak 5, asteartea

Ez da eki(alde)rik ikusten gaur,
Ez dirudi ikusiko denik datozen mende(balde)etan ere.
Grisa da lainoa eta lainoa grisa.
Berri onik ez dakarren horietakoa,
Euri-ura soilik.
Eta halaxe egin du gaurkoan ere,
Beste egun batez,
Euria zirimiriaren atzetik
Eta ostarte bakanen bat zabalduz gero
Begi kliska batean itxi da,
Berriz euriari paso emateko.

POESIA

Sendoak dira tantak,
Tanta hitza bera dela eta
Mardulak izan behar direla badirudi ere.
Bizkor jausten diren horietakoak dira,
Begirada lausoarazten dutenetakoak.
Baina badu euriak sarri
Gauza on bat,
Apirilean bereziki:
Heltzeaz ziren azken hazietatik
Lore ederrak jaioarazten ditu.
Baina loreak ere
Apirileko euri bustitan ez dira hain eder.

Euriak begiak ez ezik
Bihotzak ere lausotzen ditu maiz
Eta sentimenduak irristaka jartzen ditu,
Guztiz sendatu gabe gelditutako minak
Lore gisa errotuz.
Bihotza gristen hasten denean, ordea,
Ez da ostarterik ikusi ohi
Ekaitz goibela baino.
Eta halakotan
Tantak
Zerutik ez ezik
Begietatik ere erortzen dira.
Eta euriaren ur gezaren
Eta malkoen gaziaren arteko muga
Lauso bihurtzen da,
Berdin duelako jada
Zer den blai egindako tximetatik
Apalki
Beherantz datorren euri-jasa
Eta zer begietatik ateratako
Erreka malkartsua.

Apirilak 7, osteguna

Nola
Haizearen herrira
Joan z(ir)en
Kontatzen du Imanol Urbietak,
Kantatzen dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek.

Neuk ere,
Inbidiaz apika
Kontatzen zuen, kantatzen duten edertasunagatik
Halaxe egitea erabaki nuen;
Haizearen herrira etorri nintzen.

Haizearen herrian
Haizea egin egiten da,
Sortu,
Jaio.
Eta iaioa izan beharra dago itzuritzeko,
Edo bertan jaioa saihesteko gaitasuna izateko.
Hostoek ere ezin diote haizeari
Hanka egin.
Hain da haizea bortitza,
Zakarra
Zeinen hostoak zebrabide margotu berriko
Pintura zurian itsasten dituen
Eta bertan itsatsita gelditzera kondenatu.

Haizea hemen irazan ohi da,
Baina inork ez daki nondik.
Haizea han amaitzen da, ordea,
Eta ez dugu ulertzen zergatik.
Izan ere, hemen hasia
Zergatik amaitu behar da han?
Eta ez hemen? Edo hor?
Haizeari galdetzen diot
Haizatzen den aldiro
Baina ez dut inoiz erantzunik jaso,
Haize ufada soil bat gehiago
Besterik ez.

POESIA

Agian izango da
Mendi gailurren falta
Edo hemengo lurren zapaltasuna,
Horrantz abiatzearekin altxatzen diren lur berdinen apaltasuna.
Agian izango da eraikinak soilik
Direlako hemen garaiak,
Eta jendea.
Edo apika garaiak aldatu direlako
Eta haizeak jada ez dakielako
Nondik jo,
Non jaio
Eta norantz joan.

Baina haizea hemen egiten da,
Eta sortu

Eta egunero senti dezakegu hori gure azal hotzetan,
Ez baita haize epelik Herbehereetan.
Baliteke horregatik izatea hemengoak
Horren hotzak, eta horren hutsak,
Haize-ufadak saihesten dielako lagunarengana hurbiltzea.
Horrela uxatzen ditu haizeak besarkadak,
Eta horregatik gorroto dut haizea,
Bertakoak besarkatu, ukitu, gertu sentitu nahi badituz ere
Ezin dudalako,
Ez delako posible.
Gaizki begiratuko nautelako.
A,
Eta bizikletan ibiltzea galarazten didalako,
Ez baita horren erraza
Haize-bolada bortitzaren erdian
Bi gurpildun tramankuluaren gainean mantentzea.

Apirilak 10, igandea

Amaitu da Korrika Euskal Herrian.
 Hasiera ekitaldia zuzenean ikusi nuen,
 Malkoei ezin eutsi.
 Zein garrantzitsuak diren lehen kilometroak
 —eta ez Korrikan soilik—
 Bizitzako edozein korrikaldi,
 Ibilaldi,
 Edota pausaldi osteko hasieratan.
 Lehen kilometro horiek ekiten diote bideari,
 Metro horiek izango dira
 Etorkizuna
 Adieraziko dutenak,
 Iraganeko kilometroak jada
 Historia dira,
 Oroitzapena;
 Etorkizunekoak, berriz,
 Misterio,
 Etortzekoa,
 Ezezaguna.
 Hala ere, orainekoak dira garrantzitsuenak
 Orainaldikoak,
 Oraingoak;
 O(ra)in(go)ak baitira
 Ibilbidearen hasiera,
 Abagunea, bidea eta etorkizuna bera markatuko dituztenak.

Ez da hasiera izan gaurkoan,
 Amaiera baizik.
 Hasiera orok baitu amaiera bat.
 Jaiotzen den oro hiltzera behartua baitago.
 Eta aurten 22.enez jaio da Korrika,
 Eta hilda, 23. Korrika jaio arte.

Halako egunetan
 Etxea urrun sentitzen da,
 Korrika-k egiten dituen
 Kilometro guztien erdira banago ere distantzian.
 Baina hori da arazoa,

POESIA

Kilometroak kilometro direla
Eta distantzia distantzia;
Kilometroak gutxitu daitezkeela bidea eginez gero,
Baina distantzia ez dela desagertzen.
Izan ere, bihotza hamaika tokitan duenak
Beti sentitzen du distantzia tokiren batekiko.
Inoiz ez da dena gertu egongo,
Beti faltako delako zerbait.

Niri gaur Euskal Herriko etxea falta zitzaidan moduan,
Distantziara izan ditut Irlandakoa ordutik azkenekoz alde egin nuenetik
Zein Eskoziako Highlands-ak eta bertako kilt eta tartan-ak.
Hori da bihotza hainbat toki zein zatitan izatearen arazoa:
Beti izango duzula zerbait nahi baino urrunago,
Eta inoiz ezingo zarela guztiz etxean sentitu.
Etxea bihotza dagoen tokian baitago.
Eta bihotza zatikatua egonik,
Ezinezkoa da guztiz etxean sentitzea
Nehoz.

Hala ere, aurkitu dut nik gaur Euskal Herriko beroa hemen
Guk geuk antolatutako Korrika-n,
Korrika ofizialaren amaiera ekitaldiaren ostean.
Igarri dut bihotza berotu zaidala,
Une batez izan bada ere behintzat,
Etxean eginiko lekukoa eramatean
—eta bai, badakit ez dela benetako lekukoa eramatearen pareko—,
Baina zuriz, gorriz eta berdez margotutako
Makila zati bat eramatea bezalako ekintza xume batek
Etxean sentiaraz zaitzake tarte batez,
Eta bihotza zegoena baino zatikatuago utzi agian;
Izan ere, jabetzen zara zure bihotzak jada baduela beste herri bat
Beste etxe bat,
Non ez zaudenean faltan sumatuko duzun
Eta distantziak distantzia izaten jarraituko duen.

Hori da etxea
Apika
Bihotza dagoen toki oro,
Munduan barrena milaka lekutan banatua badago ere.

Azkena, asteko edozein egun, hilabeteko edozein zenbaki

Aspaldi nintzen jabetua
Baina gaur,
Atzo
Edo agian bihar,
Inoiz baino gehiago ohartu naiz
Egunei begira bizi garela:
Izan iraganeko egunak,
Egunerokotasuna
Edota etorkizunak ekarriko dituenak.

Esperoan bizi gara,
Eta esperotakoa gertatu ezean,
Akabo.

Irakur dezakezu hau gaur,
Irakur zenezakeen herenegun,
Edo nahi izanez gero irakur genezake etzidamu,
Zuk eta biok,
Elkarrekin.

Baina denborak denbora izaten jarraitu du
Eta iraganak joana,
Eta etorkizunak oparo.

Baliteke zenbatutako egun guztiak ez izatea
Egun zenbatu,
Edo alderantziz,
Egun zenbatuek
Ez dute zertan izan zenbatutako egun
Edota denboraren pasarte soil bat,
Bizitzako esperientzia bat baizik;
Bizi osorako oroitzapen bat
Edo ikastaldi bat.
Egutegian borobildutako zenbaki soil baten gaindi.
Azken batean egutegia bera ere
Amaiera batera iristen da,
Baina denbora bera ez da gelditzen.
Hala denbora egutegi berria paretan zintzilikatzean

POESIA

Orduan soilik
Hasten al da berriz martxan?

Beharbada denbora,
Kontzeptua bera
Definitu beharko litzateke berriz horretarako,
Eta bizitza egunetan zenbatzeari utzi.
Baina hori beste batean izan beharko da,
Poesia hau bidaltzeko epemuga bihar da eta.



**Aranzadi ikastolako
6. mailako ikasleak**

**Lehengo taldea
Saria**

BERTSOA

**Ea asmatzen duzuen
zein emozio den**

EA ASMATZEN DUZUEN ZEIN EMOZIO DEN

Ahoa itxi eta
estutu haginak.
Faltan botatzen ditut
nire lagun minak.

Examin bat daukat gaur
ez dut asko ikasi
dardarka nago
nik ezin dut hasi.

Azterketa ondoren
dago dena gaizki
ta nire ondokoak
guztiak dakizki.

Gaur Yogara joan naiz
ez aztoratzeko
ta ongi egin dut lo
ongi esnatzeko.

Ostiraleko bostak
dira orain bertan
eskaileretan gaude
denok korriketan.

Munstro bat ikusi dut
nire armairuan
zer nolako zirrara
daukadan barruan.

Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak

**Lehengo taldea
Saria**

BERTSOA

Munduan zehar bidaiatzen ari gara



MUNDUAN ZEHAR BIDAIATZEN ARI GARA

Errusiara goaz bidaian
motxila bete-beteta
baina ni orain gogoratu naiz
ahaztu dudala maleta.

Txinara goaz gaurko egunean
arroz mordo bat jatera
bihar beste herrialde batera
pila bat disfrutatzeraz.

Ingalaterrara heldu eta
bertan Big Ben erlojua
ordua gaizki dagoenean
ematen dit amorrua.

Australiara joan gara ta
animaliak ugari.
Itsaspekoak ta lurrekoak
denak daude hor kantari.

Gure taldea goaz Txilera
lurrikarak ikustera.
Pikante asko jango dugu ta
sua ahotik atera.

Egiptora heldu ta Nilora
doazte krokodiloak.
Eguzkiak gogor jotzen du ta
bero-bero bertakoak.



Ibai Moncayola



eta Itzal Mujika

**Lehenengo taldea
Saria**

BERTSOA

22. korrika

22. KORRIKA (Doinua: Baldarrak)

Bidea egin eta
Testigua pasa
Behingoz hartuko dugu
Berriro arnasa

Korrika egin eta
Kanpoan mingaina
Beste puntatik dator
Izerdi usaina

Bi urte geroago
Denok tipi-tapa
Kontuz badator eta
Handia aldapa

Pankartaren atzetik
Oihuka ari gara
Animatzen gabilta
Gora-gora euskara

Maite Errasti

Bigarren taldea
1. saria

BERTSOA
Ene, oporrak!



ENE, OPORRAK!

(Doinua: Amerikatarak joan nintzen)

Karnabalak pasauta
aste santuak be
ikastolako bueltan
zein amaigabe
ikasi eta abar
nago etengabe
horrela egoteko
Karibbean hobe

Bi hilabete barru
uda datorkigu
gozoki, izozkiak...
gustatzen zaizkigu
hondar ta olatutan
disfrutatzen dugu
ez bukatzeko inoiz
eskatzen dizugu


Lagunekin batera
berriro klasera
kurtso berria hasi
uda agurtzera
kontzentratu berriro
ta aprobatzera
dena ahaztu dut nik
Urteroko bera.




Markel Akizu

Lehenengo taldea
Saria

KOMIKIA
Kontuz frutarekin





Iratz Arenaza

Lehenengo taldea
Saria

KOMIKIA
Marteko aliena



Marteko aliena





Miren Irizar

Lehenengo taldea
Saria

KOMIKIA
Pozik ala ez?

POZIK

ALA
EZ?



Jare Alberdi

Bigarren taldea
1. saria

KOMIKIA

Accacia eta eukalipto



Panel 1: A tree with a face and arms is talking to a person. The tree says: "Ik wil graag een vriendin hebben." (I would like to have a girlfriend.)

Panel 2: The person responds: "Dat is heel moeilijk." (That is very difficult.)

Panel 3: The tree says: "Waarom?" (Why?)

Panel 4: The person explains: "Omdat je een mens moet zijn." (Because you must be human.)

Panel 5: The tree says: "Maar ik heb een menselijke vorm." (But I have a human form.)

Panel 6: The person replies: "Dat is niet genoeg." (That is not enough.)

Panel 7: The tree asks: "Wat heb ik nog nodig?" (What do I still need?)

Panel 8: The person answers: "Je moet ook een hart hebben." (You must also have a heart.)

Panel 9: The tree says: "Ik heb een hart." (I have a heart.)

Panel 10: The person says: "Dat is goed, maar..." (That is good, but...)

Panel 11: The tree asks: "Maar wat?" (But what?)

Panel 12: The person explains: "Je moet ook een ziel hebben." (You must also have a soul.)

Panel 13: The tree says: "Ik heb een ziel." (I have a soul.)

Panel 14: The person says: "Dat is heel goed." (That is very good.)

Panel 15: The tree asks: "Nu ben ik klaar?" (Now am I ready?)

Panel 16: The person says: "Nu kun je een vriendin vinden." (Now you can find a girlfriend.)




June Tabares

**Bigarren taldea
2. saria**

KOMIKIA

Superbotereak zituen mutil arraroa





Superbotereak zituen mutil arraroa



Jon Errasti

Hirugarren taldea
1. saria

KOMIKIA

Benetako aberastasuna





Jon Errasti

Hirugarren taldea
2. saria

KOMIKIA
Herrian erosi







Begarako Udala
EUSKARA ZERBITZUA